

OHIZKO OSOKO BILKURA

2016.07.27

Tolosako Udaletxean, 2016ko uztailaren 27an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 27 de julio de 2016, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Idazkaria:
Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
2016ko ekainaren 28ko Ohizko Osoko bilkurakoa.
2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

Orden del día

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión Ordinaria del 28 de junio de 2016.
2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

- | | |
|---|---|
| 2016ko ekainaren 1etik 30era (2016/1.042-2016/1.275). | Del 1 al 30 de junio de 2016 (2016/1.042 al 2016/1.275). |
| 3. Lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea: gizarte zerbitzuetako burua. | 3. Aprobación de la Modificación de la Relación de puestos de trabajo: Jefe de Servicios Sociales |
| 4. 2015eko Kontu Orokorraren onarpena, | 4. Aprobación de la cuenta General del ejercicio 2015. |
| 5. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketaren onarpena. | 5. Aprobación de la Modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles (tipo impositivo). |
| 6. Kreditu aldaketarako 3/2016 espedientearen onarpena. | 6. Aprobación del expediente de Modificación de créditos 3/2016. |
| 7. 3/2016 kreditu aldaketarako espedientea. Finantza iraunkortasuna ebaluatzeko txostena. Komunikazioa Udalbatzari | 7. Comunicación al Pleno del informe de evaluación de estabilidad presupuestaria: modificación de créditos 3/2016. |
| 8. Tolargi, S.L., Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko izendatzea | 8. Declaración de Tolargi, S.L: como medio propio y servicio propio |
| 9. Tolosako Udalaren kudeaketa-mandatua Tolargi S.L.ren alde onartzea. | 9. Aprobación de la encomienda de gestión a favor de Tolargi, S.L. |
| 10. Tolargi, S.L., Batzar Orokorraren funzioetan: Tolargiko Estatutoen aldaketa partziala -2.artikulua- eta kudeaketa gomendioa onartzea. | 10. En funciones de Junta General de Tolargi, S.L., modificación parcial de Estatutos de Tolargi, S.L.(artículo 2) y aceptación de la encomienda de gestión. |
| 11. Tolosako Euskal Herria plaza 1 B eraikinean hotel-jatetxe-kafetegi zerbitzuak esleitzeko kontratazio espedientea onartzea. | 11. Aprobación del expediente de contratación para la adjudicación de los servicios de hotel-restaurante-cafetería en el edificio 1-B de Euskal Herria plaza. |
| 12. Tolosako udalerrian kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren aldaketa. | 12. Modificación de la ordenanza reguladora de la venta ambulante en el municipio de Tolosa. |
| 13. Bide publikoan Terrazak jartzea arautzen duen ordenantzaren aldaketa. | 13. Modificación de la ordenanza Reguladora de la Instalación en la vía Pública de Terrazas. |
| 14. ACEX, Eskolaz Kanpoko Ekintza Osagarrien Programaren inguruan EHBilduk aurkeztutako mozioa. | 14. Moción presentada por EHBildu relativa al programa ACEX (Programa de Actividades Extraescolares y Complementarias). |
| 15. Tolosako Alderdi sozialistak komunitateko auto-konpostagailuen inguruan aurkeztu duen mozioa. | 15. Moción presentada por el Grupo Municipal Socialista relativa a los autocompostadores comunitarios. |
| 16. Galderak eta eskaerak. | 16. Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1. Ondorengo akta onartzea:
2016ko ekainaren 28ko Ohizko Osoko
bilkurakoa.**

**1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión Ordinaria del 28 de junio de
2016.**

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

**2. Alkatetzako dekretu hauen berri
ematea:
2016ko ekainaren 1etik 30era
(2016/1.042-2016/1.275).**

**2. Dar cuenta de los decretos emitidos
por la alcaldía:
Del 1 al 30 de junio de 2016
(2016/1.042 al 2016/1.275).**

Alkatetzak 2015eko urriaren 1etik 31ra bitartean (2015/1.567-2015/1.742) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Ibai Iriarte San Vicente, EHBilduko zinegotziak ondorengo bi dekretu hauen inguruak azalpenak eskatu ditu:

Lehenik, 2016ko ekainaren 13ko 1131/2016 dekretua, "Axari 4.000€ ordaintzea Koldobika Jauregi prozeduran". Euskal Herriko plazako prozeduran azkenean adostasunera iritsi ziren alde guztiak. aseguruak ordaindu zuen 30.000€ eta guk, Udalak frankizia ordaindu egin behar izan genuen, 4.000 €. Honen aurrean Ibai Iriarte San Vicente eskatu du gaia historikoa denez eta urteak dituen hurrengo bateran batzordetik pasatzea.

Bigarren, Personaleko 2016ko ekainaren 18ko 1.092/2016 dekretu zenbakia, "Aipatutako prozeduran Tolosako Udala agertzea, horretarako abokatu hauek izendatuz: Rafael Entrena Fabre eta Jesus Santín Bascón, eta prokuradore gisa Ignacio de Anzizu Pigem, Jesus Sanz Lopez, Francisco Javier Manjarin Albert y Angel Quemada Cuatrecasas izendatuz" Idazkariak azaldu du 2007tik liskarra dagoelak langileen Mutua Universalarekin eta prozedurarako izendapenak direla.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**3. Lanpostu zerrendaren aldaketa
onartzea: gizarte zerbitzuetako burua.**

**3. Aprobación de la Modificación de la
Relación de puestos de trabajo: Jefe
de Servicios Sociales.**

Alkatea: "Gizarte zerbitzuetako buruaren perfiletaz hitz egin zenean batzorde eta baita sail bat zetozen gizarte langintzako pertsona bat izan behar zuela baina azken urteetako esperientziaren arabera baloratu zen ere kudeaketa gaiari erreparatzea, gehienbat gizarte zerbitzu sailak aztertzen eta artatzen dituen gai guztiengatik, baita ere kudeatzen duen aurrekontu kopuruagatik eta bere menpe duen pertsonengatik. Horregatik oinarrietan ezinbestekotzat jo zen kudeaketa esperientzi bat eskatzea. Orain Idazkariak azaldu duen bezala, pertsona bakarra aurkeztu zen perfil hori betetzen zuena eta azkenean ez du gainditu. Beraz, orain oinarrietatik ezinbesteko adierazpen hori kentzen da eta kudeaketaren esperientzia baliagarria izan daitekeen edo hori oinarriak onartzen direnean erabakiko dugu, behintzat ez dugu uzten kudeaketaren garrantzi hori."

Gizarte Zerbitzuetako buruaren deialdia izapidetu ondoren, hautaketa prozesua hutsik geratu da. Gaia aztertu ondoren, plaza hutsik geratzearen arrazoi nagusia, eskatutako ukanbeharrak gehiegizkoak zirela ondorioztatu da, hau da, Gizarte Lanean diplomatua izateaz gain, 300 ordutako Master edo posgradua Gizarte Zerbitzuetako gestioan titulua eskatzen zen hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko.

Honela, deialdi berri bat egiterako orduan, bertan aurkezteko soilik Gizarte langile titulua eskatzea proposatu da, izangai gehiago aurkeztu ahal izateko hautaketa prozesura. Honek 2016 urteko Lanpostu Zerrendaren aldaketa eskatzen du eta gainontzeko ukanbeharrak plazari kentzea.

Hortaz, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak 2016ko uztailaren 20an jaulkitako diktamena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik.- Gizarte zerbitzuetako buruaren lanpostua aldatzea eta lanpostuak zituen ukanbehar espezifikokoak ezabatzea, alegia Master edo posgradua gizarte zerbitzuetako gestioan edo MBA, gutxienez 300 ordutakoa.

Bigarrenik.- Lanpostu zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea

4. 2015eko Kontu Orokorraren onarpena.

4. Aprobación de la cuenta General del ejercicio 2015.

Udalaren 2015eko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra jendaurrean jarri zen, hamabost eguneko epean, interesatuek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Hori horrela, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko ekainaren 29an eta udaletxeko iragarki taulan argitara eman zen eta, epe barruan, ez da inolako erreklamaziorik edo oharpenik aurkeztu.

Hori guztia kontutan izanik, Kontu Batzorde bereziak 2016ko ekainaren 22an emandako diktamenaren arabera, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako 2015eko Udal Sektore publikoaren kontu orokorra onestea. Kontu orokorra honoko agiri hauek osatzen dute:

Udalaren Kontua.

Iurramendi Egoitzaren Kontua.

Erretengibel, S.A.ren Kontua.

Tolargi, S.L.ren Kontua.

Tolosa Lantzen, S.A.ren Kontua.

Tolosa Gasa, S.A.ren Kontua.

Tolosa Lotzen, S.A.ren Kontua.

Udal Sektore publikoaren Kontu Bateratua.

BIGARRENA.- Espedientearen berri Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Foru Aldundiari eta Kontuhartzaitza departamentuari ematea.

5. Ondasun Higiezin gainerako Zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketaren onarpena.

5. Aprobación de la Modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles (tipo impositivo).

Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakariak akordioaren azalpen zatiko azalpenean agertzen direnak azaldu ditu.

Aurten, Aldundiak ondasun higiezin hiritarren balio katastralen berrikuspina egin du. Berrikuspen horren arrazoia izan da balio katastralak eguneratzeko beharra, kontuan izanda azkeneko berrikuspina 2001. urtean burutu zela.

2016ko maiatzean jaso zuen Tolosako Udalak Foru Aldundiak egindako balio ponentziaren datuak.

Behin ponentzia aztertu ondoren bilera bat izan zen Foru Aldundian gaia aztertze aldera.

Bilera horretan adostu zen Tolosako Udalak proposamen bat egingo zuela, izan ere Tolosako Udaleko teknikarien arabera homogeneizazio falta zegoen Foru Aldundiko proposamenean.

Aldundiak, hiritar izaerako lurrei esleitutako balioak eta merkatal ikerketatik ondorioztatu diren balioak berrikusi ondoren, lurzuaren balioetako batzuk aldatu egin zituen, Udalaren proposamenaren arabera. Udalaren proposamena eta Aldundiak egindako aldaketak hiritar izaerako lurren balioetan ondorengo taulan ikus daitezke:

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.07.27

GUNEA	EREMUA	2016	ALDUNDIA HASIERAN	UDALAREN PROPOSAMENA	ALDUNDIA 2.BERTSIOA
11	RONDILLA BI ALDETA	569,7	705,02	649,00	649,28
12	SOLANA-PZARRA	472,03	532,05		532,05
13	ALDE ZAHARRA	526,1	532,05	532,00	532,05
14	STA MARIA-AGINTARI	344,29	414,83	445,00	445,57
15	EH PLAZA	490,82	649,28	532,00	532,05
17	MONTEZKU	344,28	476,31	445,00	445,57
21	TRIANGULO-SAN FRANTZISKO	767,17	933,72	933,00	933,72
22	SFRANTZISKO(LEIDOR ALDEKOAK)	611,72	822,24	822,00	822,24
23	FUEROS-ZUMALAKA	716,46	593,53	649,00	649,28
24	AVDA NAVARRA	586,89	593,53	649,00	593,53
26	GUDARI	540,79	562,79	649,00	593,53
28	LOPEZ MENDIZABAL	611,72	649,28	649,00	649,28
29	ZEZEN PLAZA-PEDRO TOLOSA		649,28		649,28
102	BELATE	357,96	476,31	476,00	476,31
104	ZULOAGA	266,55	445,57	445,00	445,57
111	LARRAMENDI	419,92	649,28	576,00	593,53
112	TRINKETE	312,65	476,31	476,00	476,31
113	IZASKUNGO ALDAPA-BEHEA	289,21	476,31		476,31
116	IZASKUNGO ALDAPA-GORA	344,28	445,57		445,57
201	STA CLARA	511,22	562,79	532,00	532,05
301	KONEDEANEKO PAREAK	598,69	705,02	649,00	649,28
302	KONDENAKEKO-ZABAL	616,37	593,53	593,00	593,53
303	IPARRAGIRRE	588,02	649,28	593,00	593,53
304	BIDEBIETA-IZAS	495,47	593,53	532,00	532,05
305	SAN BLAS-BEHERA	344,28	445,57		445,57
306	SAN BLAS-GORA	318,17	414,83		414,83
311	BERAZUBI	495,47	649,28	593,00	649,28
312	YURRE	540,24	593,53	593,00	593,53
313	YURREAMENDI (AZK ETXEAK)	530,51	445,57	593,00	532,05
321	AMAROTZ	396,48	445,57	445,00	445,57
322	SAN BLAS TXALETAK	396,48	532,05		532,05
324	IRUÑA ETORBIDEA	396,48	445,57		445,57
401	PZA GIPUZKOA(LEIDOR ATZEK)	593,37	562,79	649,00	649,28
402	SAN JOAN KALEA	611,37	532,05	532,00	532,05
411	ARABA ETORBIDEA	548,25	649,28	649,00	649,28
501	SAN JUAN KALEA	266,55	476,31	476,00	476,31
502	ZUBEROA	357,1	445,57	445,00	445,57
503	SAN ESTEBAN	357,1	445,57	445,00	445,57
504	URKIZU	114,79	186,12		186,12
505	BEDAIO	114,79	186,12		186,12
601	SAN ESTEBAN-FONDO	320,96	384,09		384,09

Tolosako Udalak, orokorrean, ontzat eman bazituen ere Aldundiak onartutako aldaketak, lau eremuek duten balorazioarekin ados ez zegoenez, alegazioak aurkeztu zituen ondorengo arrazoi hauengatik:

- Nafarroa etorbidea eta Gudari eremuen lurzorua balioak ez dute bere inguruko eremuen balio bera.
- Berazubiko eremuak erdiguneko hainbat eremutako balioa hartu beharrean (Foruen, Zumalakarregi ...) lurre auzoa bezalako eremuen balioa hartu beharko luke.
- Larramendi auzoak nahiz eta antzekotasun handia izan lurre edo lurreamendi eremuekin, hauen balioa baino txikiagoa izan beharko luke, izan ere, Tolosako sarrera garrantzitsuenetakoa da eta, ondorioz, auzoaren bizikalitatea txikiagoa.

Azkenik, Aldundiak onartu egin ditu lurzorua balioen aldaketa hauek eta Diputatuen Kontseiluak onartu behar duen balio ponentzian sartu egin dira.

Balio ponentziaren arabera, eta salbuetsita dauden ondasunak kenduta, hauek dira industria eta hirugarren erabilerako lurzorua dauden hiri ondasunen eta gainerako hiri ondasunen balio katastralak, 2016an eta 2017an:

Balio katastrala	2016	2017	ALDEA	%
Orokorra	1.180.848.983,50	1.123.474.020,24	57.374.963,26	-4,86%
Industrialak	62.937.298,90	57.212.663,50	-5.724.635,40	-9,10%
Guztira	1.243.786.282,40	1.180.686.683,74	63.099.598,66	-5,07%

Kontuhartzaileak egindako txostenean 2017ko karga tasa finkatzeko aurreikusten diren aukerak aztertu dira.

Eztabaidatu ondoren erabaki da balio katastral berriak kontutan harturik, karga tasak 2016ko eroldaren zenbatekoari eutsiz ezartzea.

Lurzoru industrial edo 3.sektorean kokatuta dauden ondasun higiezinak kasuan, irizipide honekin 12/1989 Foru Arauaren %0,6ko muga gainditu egiten da, karga tasa %0,6045 izango litzatekeelako. Karga tasa %0,6an uzten bada, 2017ko eroldaren aurreikuspena 2.564,49 euro jeisten da 2016koarekin konparatzen badugu.

Hau dena kontutan harturik eta Ogasun batzordeak 2016ko uztailearen 20an jaulkitako diktamena, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik : Hiri Ondasun Higiezinak gaineko Zergaren karga tasak aldatzea, honela utziz:

Karga tasa	2016	2017
Industria eta hirugarren erabilerako lurzoruan dauden hiri ondasunak	0,5495%	0,6000%
Gainerako hiri ondasunak	0,2828%	0,2972%

Bigarren.- Hartutako akordioa eta bideratutako espedienteak jendaurrean jartzea hogeita hamar eguneko epean, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailearen 5eko 11/1989 zk.dun Arau Foralak agindu bezala: Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historiko buletinean eta egunkaririk zabalduenak batean iragarkia argitaratuz.

Hirugarren.- Aipatutako erabakia behin betikoa jotzea beste erabakirik hartu beharrik gabe, jendaurreko erakustaldi hori inolako erreklamaziorik jaso gabe agortu bada.

Hala ere, erabaki diren akordio bat edo batzuk erreklamazio xede bihurtzen badira, Udalbatzak horiei buruzko erabakiak hartzera joko du, aurkeztu diren erreklamazioei buruzko ebazpenak emanez edo aipatu aldaketen behin-betiko testua onetsiz.

Alabaina, ez da erabaki berririk hartu behar izango jendaurreko erakustaldiaren barru erreklamazio xede izan ez den edo ez diren akordioei buruz, akordio horiek behin-betikoz onartutakotzat joko baitira.

**6. Kreditu aldaketarako 3/2016
espedientearen onarpena.**

**6. Aprobación del expediente de
Modificación de créditos 3/2016.**

Begoña Tolosa Mendi Ogasun batzordeko lehendakaria:

Aurkeztu duguna da, hirugarren kreditu aldaketa. Hau lotutako dago gaurko plenoan 11. gai zerrendan agertzen den puntu horrekin, Euskal Herria plazako hotel, jatetxe kafetegiko pleguarekin eta kasu honetan behartuta gaude kreditu aldaketa gauzatzera. Kontratazioak beti lotuta egon behar duelako partida ekonomiko batekin. Horretaz aparte kreditu honetan sartzen ditugun beste 11.000 € Sanjoanetan ematen ditugun benerak bukatu egin zirelako, Cristian Fernandez zinegotziak ere ez zeukan eta egin duguna da beste lote bat erosi beste bi edo hiru legealditarako.

Tolosako Udalaren 2016ko Aurrekontuaren barnean kreditu transferentzien eta kreditu gehigarrien bidez izapidetzen den espedientea tramitatzen ari da. Espediente honi dagokion gastuen proposamena banatu zaie Udalbatzarkideei eta honen edukia aztertu da.

Kreditu aldaketarako proposamena hau da:

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.07.27

AZALPENA	PARTIDA			Behin betiko Aurrekontua 2016	Aldatutako Aurrekontua 3/2016 esp.	Kreditu Aldaketa		Aldatutako Aurrekontua 3/2016 esp.
	Org	Eko	Fun			Gehi	Jeitsi	
KAP.1 PERTSONAL GASTUAK Beste pertsonala. Zehaztugabekoak	0100	100.01	91200	128.000,00	117.000,00	0,00	11.000,00	-11.000,00
Kap.1:				128.000,00	117.000,00	0,00	11.000,00	-11.000,00
KAP.2 ONDASUN ARRUTEN GASTUAK Beste gastuak. Gobernu organoak	0100	226.99	91200	25.000,00	36.000,00	11.000,00	0,00	11.000,00
Kap.2:				25.000,00	36.000,00	11.000,00	0,00	11.000,00
KAP.4 TRANSFERENTZIA ARRRUNTAK				0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Kap. 4 :				0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
KAP.6 INBERTSIOAK Hainbat eraikinetako obrak	0700	622.02	92031	279.000,00	579.000,00	300.000,00	0,00	300.000,00
Kap. 6 :				279.000,00	579.000,00	300.000,00	0,00	300.000,00
KAP.7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK						0,00	0,00	0,00
Kap.7 :				0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA :				432.000,00	732.000,00	311.000,00	11.000,00	300.000,00

Gastu gehikuntza eta finantziazioa hauek dira, kapituluka:

GASTU GEHIKUNTZA	Euroak
Kap. 1 Pertsonal gastuak	0,00
Kap. 2 Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	11.000,00
Kap. 4 Transferentzi arruntak	0,00
Kap. 6 Inbertsio errealak	300.000,00
GUZTIRA:	311.000,00
FINANTZIAZIOA	Euroak
KREDITU TRANSFERENTZIAK	
Kap. 1 Pertsonal gastuak	11.000,00
GUZTIRA:	11.000,00
DIRUZAINZAKO GERAKINA (KREDITU GEHIGARRIAK)	
Kap. 8 Finantza aktiboak	300.000,00
GUZTIRA:	300.000,00
FINANTZIAZIOA GUZTIRA:	311.000,00

OHIZKO OSOKO BILKURA
2016.07.27

2016ko Sarrera eta Gastuen Aurrekontuen bilakaera, 3/2016 zenbakidun Kreditu Aldaketarako espedientea barne, ondorengo koadroetan laburtzen da kapituluka:

AZALPENA	Hasierako	Kreditu	Kreditu	Kreditu	Behin-betiko
	Aurrekontua	Aldaketa	Aldaketa	Aldaketa	Aurrekontua
	2016	1/2016	2/2016	3/2016	2016
1. Pertsonal gastuak	8.150.464,00		185.000,00	-11.000,00	8.324.464,00
2. Ondasunen erosketa eta zerbitzuak	8.604.134,00	451.422,86	234.300,00	11.000,00	9.300.856,86
3. Finantza gastuak	164.456,00				164.456,00
4. Transferentzi arruntak	3.957.751,00	313.342,71	11.500,00		4.282.593,71
6. Inbertsio errealak	2.425.000,00	2.296.369,02	1.942.500,00	300.000,00	6.963.869,02
7. Kapital transferentziak	189.142,00	141.000,00			330.142,00
8. Aktibo finantzarioak	0,00				0,00
9. Pasibo finantzarioak	971.053,00				971.053,00
GASTUAK GUZTIRA	24.462.000,00	3.202.134,59	2.373.300,00	300.000,00	30.337.434,59

AZALPENA	Hasierako	Kreditu	Kreditu	Kreditu	Behin-betiko
	Aurrekontua	Aldaketa	Aldaketa	Aldaketa	Aurrekontua
	2016	1/2016	2/2016	3/2016	2016
1. Zuzeneko zergak	5.630.083,00				5.630.083,00
2. Zeharkako zergak	737.000,00				737.000,00
3. Tasak eta bestelako sarrerak	4.084.565,00				4.084.565,00
4. Transferentzi arruntak	13.164.582,00	75.989,37			13.240.571,37
5. Ondasun sarrerak	739.770,00				739.770,00
6. Inbertsioen besterenganaketa	100.000,00				100.000,00
7. Kapital transferentziak	6.000,00	484.991,01	36.782,00		527.773,01
8. Aktibo finantzarioak	0,00	2.641.154,21	2.336.518,00	300.000,00	5.277.672,21
9. Pasibo finantzarioak	0,00				0,00
SARRERAK GUZTIRA	24.462.000,00	3.202.134,59	2.373.300,00	300.000,00	30.337.434,59

Beraz, 3/2016 espedientearen aurrekontu partiden kreditu igoeren proposamenak eta finantzatzen dituzten errekurtsioak aztertu ondoren eta kontuan harturik, gastuaren premia beharra nahikoa egiaztatzen dela, hala nola igoera horiek finantzatzen dituzten errekurtsioen efektibotasuna, eta kreditu aldaketa honek aurrekontuaren garapena arindu eta zerbitzuen kudeaketa hobetu egingo duela.

Ikusiz kontuhartzaileak jaulki duen txostena, non agerian dagoen espedientearen instrukzioa indarrean dagoen legezko arautegiarekin bat datorrela, eta Ogasun batzordeak 2016ko uztailaren 20an jaulkitako diktamena, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.-Tolosako Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 3/2016 kreditu aldaketa hasieraz onartzea.

Bigarrena.-Erreklamatzeko aukera egon dadin, espedientea hamabost egun jendaurrean jarrita edukitzea. Erreklamaziorik ez badago, erabakia hau behin betikoa izango da.

7. 3/2016 kreditu aldaketarako espedientearen. Finantza iraunkortasuna ebaluatzeko txostena. Komunikazioa Udalbatzari.

7. Comunicación al Pleno del informe de evaluación de estabilidad presupuestaria: modificación de créditos 3/2016.

Kontuhartzaileak kreditu aldaketen espedientei buruz egindako txostenaren berri eman zaie plenoko kideei. Bere edukia hau da:

“Administrazio izaera duten entitateen 2016ko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 3/2016 kreditu aldaketaren ondoren, betetzen du finantza iraunkortasunaren helburua, baina ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua.

Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek bete ahal izateko.

Hala ere, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko jarraibideak onartzen duen Akordioaren 1. Erregelari ezarritakoari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu daiteke Udalbatzan, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gastuaren araua betetzen ez duten entitateek ere plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan gastu araua bete ahal izateko.

Dena den, 13/2014 Foru Arauaren 2. artikulua 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan egindako aldaketari esker, gastu arau betetzen ez duten entitateek, planaren ordezkari, komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udalbatzarrari, kontuhartzaileak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- 1. aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea*
- 2. urteko zor publikoko helburua betetzea*
- 3. urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea.*

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulatu den bi entitateetan kasuan.

Bestalde, 2016ko zor publikoaren helburua betetzen dute administrazio izaera duten entitateek, eta defizit helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena da.

Beraz, entitate hauek ez daude behartuta plan ekonomiko-finantzarioa onartzera.

Hau dela eta, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

TXOSTENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Tolosako Udalaren 3/2016 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren administrazio izaera duten entitateen 2016ko behin-betiko aurrekontuak 4.246.419,21 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

3/2016 kreditu aldaketa egin aurretik behin-betiko aurrekontuak 3.946.419,21 euroko defizitaa zuen. Beraz, 3/2016 kreditu aldaketarako espedienteak 300.000,00 euroko defizita sortu du.

Ondorengo taulan azaltzen dira datuak:

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2016	Aldaketa 1/2016	Aldaketa 2/2016	Aldaketa 3/2016
Sarrerak Kap.1 - 7	29.192.100,00	29.708.380,38	29.745.162,38	29.745.162,38
Gastuak Kap. 1 - 7	28.160.847,00	31.318.281,59	33.691.581,59	33.991.581,59
Superabita / Defizita	1.031.253,00	-1.609.901,21	-3.946.419,21	-4.246.419,21
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		2.641.154,21	4.977.672,21	5.277.672,21
Finantzaketa ahalmena		1.031.253,00	1.031.253,00	1.031.253,00

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. 3/2016 kreditu aldaketaren espedienteak finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 300.000,00 euro erabili dira.

Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak hasierako 1.031.253,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Beraz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeiz Udalbatzan komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Gastuaren araua

2015eko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 18,4 da, 3/2016 kreditu aldaketarako espedientearen ondoren.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BALORAZIOA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 3/2016
2015eko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	28.069.594,22
2015eko interesak	-124.297,78
SEC doiketak:	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik 2015ean	-188.047,33
Finatzaketa lotua duten gastuak 2015ean	-546.961,72
2015eko gastu konputagarria	27.210.287,39
Gastu ez finantzarioa (1-7 kap.) 2016	33.991.581,59
Interesak 2016	-170.991,00
SEC doiketak:	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik 2016an	0,00
-aurrekontuaren exekuzio mailarengatik	-958.047,00
Finatzaketa lotua duen gastuak 2016an	-645.467,00
Araudian egindako aldaketen eragina dirubilketa	0,00
2016eko gastu konputagarria	32.217.076,59
Gastu konputagarrien bariazioa	18,40%
HELBURUA	1,80%

Kasu honetan ere, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu Udalbatzan komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

Lehendabiziko baldintza

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da, hain zuzen 3.934.728,05 eurokoa, eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulatzeko den bi entitateetan kasuan: Udalaren kasuan 8.287.262,62 euro eta lurreamendi egoitzan 296.721,24 euro.

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2016ko zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan zehazten dira datuak:

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 3/2016
ZOR BIZIA 2016/12/31an SARRERA ARRUNTAK. 2015eko likidazioa	8.488.615 29.475.215
ZOR BIZIA / SARRERAK (1 - 5) kap. MUGA	28,80% 80,00%

Kalkulua egiteko, 2015eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2015erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Hau da zor biziaren banaketa:

-Udala	8.374.099,00
-Udala. 2016ko aurrekontuan aurreikusita	0,00
-Erretengibel Bankoa	51.617,00
-Erretengibel Kutxa	62.899,00
	8.488.615,00

2016rako ezarritako helburua magnitude hori %80 baino txikiagoa izatea da.

Hirugarren baldintza

Administrazio izaera duten entitateen behin-betiko aurrekontuak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

Dena den, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da, lehen adierazi dugun moduan:

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2016	Aldaketa 1/2016	Aldaketa 2/2016	Aldaketa 3/2016
Sarrerak Kap.1 - 7	29.192.100,00	29.708.380,38	29.745.162,38	29.745.162,38
Gastuak Kap. 1 - 7	28.160.847,00	31.318.281,59	33.691.581,59	33.991.581,59
Superabita / Defizita	1.031.253,00	-1.609.901,21	-3.946.419,21	-4.246.419,21
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		2.641.154,21	4.977.672,21	5.277.672,21
Finantzaketa ahalmena		1.031.253,00	1.031.253,00	1.031.253,00

Diruzaintza gerakinaren eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak 1.031.253,00 euroko superabita mantentzen du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

Tolosako Udalaren 3/2016 kreditu aldaketa, guztira, 311.000,00 eurokoa izan da. 11.000,00 euro kreditu transferentzien bidez finantzatu dira eta 300.000,00 euro diruzaintza gerakinaren bidez.

Diruzaintza gerakinaren bidez finantzatutako 300.000,00 euro inbertsioak egiteko erabiliko dira, hain zuzen ere, Euskal Herria plaza 1 bis udal eraikinean ostalaritza eta alojamendu jarduera sustatzeko inbertsioen zati bat finantzatzeko.

Inbertsio hauek ez dira gastu errepikakorrak eta ez dute administrazio izaera duten entitateen finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa izan zen 2015eko aurrekontuaren likidazioan (3.934.728,05 euro), kontuak bateratu ondoren. Eta 2016ko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da. Hain zuzen ere, 1.413.566,00 euro behin-betiko aurrekontuaren datuen arabera.

Zenbateko hau sarrera arrunten %4,9a da. Ratio hau gutxienez %2 eta %5 arteko tartean egotea gomendatzen da.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen 2016ko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Udalaren 3/2016 kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu araua betetzen ez baditu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen.”

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

8. Tolargi, S.L., Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko izendatzea.

8. Declaración de Tolargi, S.L: como medio propio y servicio propio.

Tolargi, SL, pertsona bakarreko sozietatea 2000 amaieran sortu zen energia elektrikoaren banaketa merkataritza-sozietate baten bitartez egiteko obligazioa betetzeko. Sektore elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak ezarri zuen obligazio hori.

Eskakizun horri erantzuteko, sozietatea Tolosako Udalaren erakunde instrumental bezala sortu zen. Horren bidez, Tolosako Udalak energia elektrikoa banatzeko jarduera modu zuzenean kudeatzen zuen, tokiko korporazioaren % 100eko parte-hartzea zuen merkataritza-sozietate baten bidez. Zerbitzu hori udal-administrazioak ematen zuen sozietate hori sortu arte.

Testuinguru horretan, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginak (aurrerantzean, «kontratuen legea») administrazio publikoen eta esleitzeko ahalmena duten beste botere batzuen berezko bitartekoaren eta zerbitzu teknikoaren figurak arautzen ditu, horiek espresuki onartuz eta definituz, eta izaera hori lortzeko baldintza hauek ezarriz (kontratuen legearen 24.6 artikulua):

1. Jardueraren ezinbesteko parte berezko bitarteko eta zerbitzu teknikotzat dituzten administrazio publikoentzat eta esleitzeko ahalmena duten botereentzat egitea.

2. Administrazio publikoek eta esleitzeko ahalmena duten botereek beren berezko zerbitzuen gainean duten antzerako kontrola izatea berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko bezala deklaratu nahi den erakundearen gainean. Hori hala dela ulertuko da Administrazio Publikoek eta esleitzeko ahalmena duten botereek nahitaez bete beharreko kudeaketa-mandatuak agintzeko gaitasuna dutenean, mandatugileak alde bakarrez erabakitako jarraibideen arabera egiten denean eta ordainsariak entitate publikoak onartutako erreferentziako tarifen arabera ezartzen denean.

3. Sozietateak badira kapital guztia titulartasun publikokoa izatea.

Aipatutako kontratuaren legearen arabera, erakunde bat berezko bitarteko eta zerbitzu

tekniko izendatuta, Administrazio Publikoak erakunde horri eskatzen dizkion negozio juridikoak egiteko ez dira lege horretan aurreikusitako lizitazio-prozedurak bete behar (kontratuen legearen 4.1.n artikulua).

Xedapen hori bera berretsi eta zabaldu egin du Europako Legediak, 2014/24/EB Zuzentaraua onartuz (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena). Zuzentaru horren 12. artikuluan zehazten da zer baldintza bete behar dituzten negozio juridiko domestikoek (hau da, botere esleitzailen eta erakunde instrumentalen arteko negozioek) Zuzentaruaren aplikazio-eremutik kanpo geratzeko. Interesatzen zaigunerako, lehen aipatutako kontratuen legearen 24.6 artikuluko berberak dira.

Hortaz, esleipena egiten duen Administrazio Publikoaren eta esleipena jasotzen duen erakundearen -lehengo berezko bitarteko eta zerbitzu teknikoaren- arteko kontratuak kontratuen legetik kanpo geratzen dira, eta ez dituzte arau horretan jasotako kontratazio-prozedurak bete behar. Horrek ez dio kalterik egiten berezko bitarteko eta zerbitzu teknikoaren izaera duen erakundeak agindu dizkion prestazioak egin ahal izateko. Horiek egiteko kontratuen legean aurreikusitako prozedurak egin beharko dira edo, dagokionean, urriaren 30eko 31/2007 Legean jasotakoak (31/2007 Legea, urriaren 30ekoa, uraren, energiaren, garraioen eta posta zerbitzuen sektoreetako kontratazio prozedurei buruzkoa), erakundearen izaeraren arabera.

Hori esanda, gehitu behar dugu kontratuen legeak (24.6 artikulua, *in fine*) eskatzen duela berezko bitarteko eta zerbitzu teknikoaren izaera espresuki jasotzea erakundea sortu duen arauan edo estatutuetan. Horiek, gainera, ezarri beharko dute ezinezkoa dela berezko bitartekoak beren botere esleitzailen deialdi publikoetan parte hartzea (horren kalterik gabe, lizitatuak bakar bat ere aurkezten ez denean, deialdi publikoaren prestazioa egiteko agindu ahal izango zaie). Izatez, estatutuen aldaketa jarraian egiaztatuko da, osoko bilkura TOLARGI, SL, Pertsona bakarreko sozietate bezala eratzten denean.

Hori guztia kontuan hartuta, egiaztatu dugu Tolargi, SL, pertsona bakarreko sozietatearen kasuan bere bazkide den Administrazio Publikoaren berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko izendatzeko legeko baldintza guztiak betetzen direla:

1. Sektore elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak ezarri zuen obligazioaren ondorioz, Tolargi, SL, pertsona bakarreko sozietateak jarduera ekonomiko bat egiten du Tolosako Udalarentzat izaera instrumentalarekin eta era eskusiboan, eta jarduera hori Administrazio horrek egiten zuen jatorrian. Hortaz, bete egiten da lehen baldintza, kontratuen legearen 24.6 artikuluan eta 2014/24/EB Zuzentaruaren 12.1 artikuluan jasotakoa.

2. Kontuan hartuta (i) Tolargi, SL, pertsona bakarreko sozietatearen batzar orokorra Tolosako Udaleko osoko bilkura dela, (ii) sozietatearen administrazio-kontseiluko kideak izendatzen dituen organoa batzar orokorra dela eta (iii) Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital-Sozietateei buruzko Legearen testu bateginaren 161. artikuluan arabera sozietatearen batzar orokorraren egitekoak direla «*administrazio-organuari jarraibideak ematea edo organo horrek kudeaketaren inguruan hartzen dituen erabaki jakin batzuk baimentzea*», esan daiteke Tolosako Udalak bere zerbitzuen gainean duen kontrolaren antzerako kontrola duela TOLARGI, SL, pertsona bakarreko sozietatearen gainean. Hortaz, bete egiten da bigarren baldintza, kontratuen legearen 24.6 artikuluan eta 2014/24/EB Zuzentaruaren 12.1 artikuluan jasotakoa.

3. Azkenik, nabarmendu behar da Tolargi, SL, pertsona bakarreko sozietatearen partizipazio sozial guztien jabea Tolosako Udala dela eta, ondorioz, bete egiten dela ere kapital sozial guztian titulartasun publikokoa izateko baldintza.

Hori horrela, 2016ko uztailaren 20an Ogasun Batzordearen diktamenarekin bat etorritz, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Tolargi, SL, Tolosako Udalaren berezko baliabidea eta zerbitzu tekniko izendatzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 24.6 eta 4.1 n) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera (2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen aipatutako testu bategina).

Bigarrena.- Akordio horren berri ematea Tolargi, SL, pertsona bakarreko sozietateari.

9. Tolosako Udalaren kudeaketa- mandatua Tolargi S.L.ren alde onartzea.

9. Aprobación de la encomienda de gestión a favor de Tolargi, S.L.

Tolargi, SL, udal-sozietate publiko bat da eta haren kapital guztia Tolosako Udalarena da. Helburu soziala, Estatutueta 2. artikulua leheneren arabera, energia elektrikoaren banaketa da.

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen eskakizunak betetzeko sortu zen sozietate hori. Izan ere, honako hau ezartzen du lege haren 14. artikulua: (i) araututako jarduerak (horien artean energia elektrikoaren banaketa) helburu sozial bakar bezala jarduera horiek egitea izango zuten merkataritza-sozietateen bidez egiteko obligazioa; (ii) ondorioz, araututako eta arautu gabeko jarduerak bereiztea. Azken horien artean daude, besteak beste, banaketa eta merkaturatzea.

Lege-agindu hori betetzearen ondorioz, hau da, jarduera merkataritza-sozietate baten bidez egitearen ondorioz, Tolosako Udalak ezin izan zuen jarraitu ustiapen horrek sortzen zituen emaitzak modu zuzenean jasotzen.

Tolargi, SL, Tolosako Udalaren berezko baliabidea eta zerbitzu tekniko izendatua izan da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 24.6 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituelako (2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen aipatutako testu bategina).

Berezko baliabide eta zerbitzu tekniko izendatzeko adierazpen hori Estatutuen 2. artikuluko bigarren eta hirugarren letraketan jaso da:

«Sozietatearen kapitala titulartasun publikokoa da bere osotasunean, bere partizipazio sozialak Tolosako Udalarenak direlako, eta Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta zerbitzu sozialaren izaera du, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 24.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Bazkidea den Administrazio Publikoak lanak, zerbitzuak edo bere helburu sozialarekin lotutako beste edozein jarduera egiteko agindu ahal izango dio, dagozkion organoek kasu bakoitzean ezartzen dituzten termino eta baldintzekin.

Sozietateak ezingo du parte hartu Tolosako Udalak deitutako lizitazio publikoetan, nahiz eta, ez bada lizitatzailerik aurkezten, Udalak agindu ahalko dion lizitazioaren xede zen prestazioa ematea.»

Horrela, bete egiten dira une honetan Tolosako Udalak energia elektrikoa banatzeko kudeaketa-mandatu Tolargi SLren alde gauzatzeko baldintzak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 24.6 eta 4.1.n) artikuluetan eta kontratazio publikoari buruzkoa den eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaruaren 12. artikuluan jasotakoak. Mandatu hau aipatutako lege horren eta zuzentarau horren aplikazio-eremutik kanpo geratuko da.

Kudeaketa-mandatu honek et Tolargi SLren existentziak ez dute inolaz ere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legeak ezartzen dituen xedapenak urratzen, erakundea ez baitago finantza-desorekako egoeran, desoreka hori operatzen duen Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 9. xedapen gehigarriaren aldaketan ezarritakoaren arabera («tokiko sektore publikoa birdimentsionatzea»).

Hori horrela, kontutan izanik 2016ko Ogasun batzordeak jaulkitako diktamena, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Xedea

Tolosako Udalak kudeaketa-mandatu gauzatzea Tolargi, SL, udal-sozietate publikoaren alde (erakunde instrumental bezala), energia elektrikoa banatzeko jarduera egiteko.

Bigarrena.- Erakunde mandatariaren betebeharrak

Tolargi SLk energia elektrikoa banatuko du eta mantentze-lanak egingo ditu eta, beharrezkoa denean, banaketa-sarea eta instalazioak eraiki eta garatuko ditu, sareak epe luzean eskariari erantzun diezaiokeela bermatzeko. Guzti hori sektore elektrikoan aplikatzekoa den legediaren arabera egingo da.

Mandatu honetako jarduerak garatzeko behar diren baimenak eskatzea eta lortzea Tolargi SLren esku geratuko da, bai eta jarduerak eragindako tasa, zerga, ariel edo kontribuzio bereziak ordaintzea ere.

Mandatu gauzatzeko datuak babesteko araudia zorrotz errespetatuko da.

Tolargi SLk, ekitaldi bakoitzeko apiril eta maiatza artean, aurreko ekitaldian mandatu honen ondorioz egindako jardueren txosten bat entregatuko dio Tolosako Udalari.

Hirugarrena.- Kudeaketa-mandatu betetzeko beharrezko bitarteko materialak

Tolargi SLk badu kudeaketa-mandatu hau betetzeko beharrezkoak diren materialak erabiltzeko gaitasuna ematen dion titulua gaur egun:

-Tolosako Udalak eta Tolargi SLk 2007ko abenduaren 31n sinatu zuten finantza-errentamenduaren kontratuaren bidez, erosteko aukera baliatu eta hondar-balioa ordaindu ondoren, Tolargi SLk energia elektrikoa banatzeko ondasun eta instalazio batzuk eskuratu ditu (finantza-errentamenduaren kontratu horren 1. eranskinean jasotzen da horien inbentarioa).

-Gainera, Tolargi SLri ondasun higiezin hauen erabilera laga dio Tolosako Udalak:

- Beheko solairuko lokala, 551,60 metro karratukoa, eta eraikinaren atzeko aldeko kanpoko patioa, 910,48 metro karratukoa, San Esteban auzoko 19. zenbakiko Unipapel eraikinean; Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuta dago 1726 liburukian, 270 liburuan, 94 folioan, 132218 finkan, udal-inbentarioko S00279 zenbakiarekin.
- Lursaila, 1.581,22 metro karratukoa, San Esteban auzoan. Bertan dago Tolargi SLk eraiki duen transformazio elektrikoko azpiestazioa.
- Beheko solairuko bulegoak, Pablo Gorosabel kaleko 34. zenbakian eta Tolosako Jabetza Erregistroan behar bezala erregistratuta daudenak.

Laugarrena.- Kudeaketa-mandatu betetzeko beharrezko giza baliabideak

Tolargi SLk badu kudeaketa-mandatu hau betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide hauek:

- Administrazioako arduradun bat.
- Banaketa-obren arduradun bat.
- Banaketa-obren kargudun bat.
- Administrari bat
- Hiru elektrikari.

Bosgarrena.- Tolosako Udalak Tolargi SLren alde egingo dituen zerbitzuak

Tolosako Udalak zerbitzu hauek ematen dizkio Tolargi SLri:

-Lan-arloa: kontratazioak kudeatzea; langileen nominak egitea; nomina eta aseguru sozialen erregistroa; langileen datuak ematean PFEZen atxikipenen adierazpenak egiteko; eta funtzio hau egin ahal izateko beharrezkoak diren guztiak.

-Lege- eta zerga-arloa: aholkularitza orokorra ematea sozietateari sozietateen, kontratuen, administrazioaren eta zergen gaien inguruan.

Seigarrena.- Erregimen ekonomikoa: ordainsariak eta ordainketa

Tolosako Udalak emandako zerbitzuen ondorio bezala eta energia elektrikoaren banaketa ustiatzeko mandatuaren ondorio bezala, Tolargi, SL, erakunde mandataria urteko ordainsari bat emango dio Tolosako Udala erakunde mandatugileari.

Ordainsari horrek zati finko bat eta zati aldakor bat izango ditu.

- Ekitaldi bakoitzean ordaindu beharreko zati finkoaren zenbatekoa 534.083 eurokoa izango da. Horrek barne hartzen ditu, energia elektrikoaren banaketaren ustiapenari dagokion mandatuaren kantitate finko batez gain, Tolosako Udaletik urtero jasotzen dituen bitarteko eta zerbitzuen ordainsariak.

Zati finkoa bi urtean behin berrikusiko du Tolosako Udalak mandatuaren xedea den jarduerak dituen aldaketen eta Tolargi SLk Tolosako Udaletik jasotzen dituen bitarteko eta zerbitzuen arabera.

Zati finko hori bera berrikusi egingo da, ohiz kanpo, bi urteak igaro aurretik, Tolargi SLk energia elektrikoa banatzeko jardueran jasotzen dituen tarifa edo ordainketek aldaketa esanguratsuak badituzte.

Ekitaldi bakoitzean sortzen den zati finkoa sei hilabete behin ordainduko dio Tolargi SLk Tolosako Udalari. Horretarako, dagozkion fakturak egingo dira ekainaren 30ean eta abenduaren 31n, hurrenez hurren, eta Tolargi SLk lege ezarritako epeen barruan ordaindu beharko ditu.

- Ekitaldi bakoitzean ordaindu beharreko zati aldakorra Tolargi SLk aurreko abenduaren 31n itxitako ekitaldian zergak ordaindu aurretik zuen emaitzaren % 30 izango da.

Ekitaldi bakoitzean sortutako ordainsari aldakorra ordainketa bakar batean pagatuko dio Tolargi SLk Tolosako Udalari, aurreko urteko kontuan onartu eta gero. Horretarako, dagokion faktura egingo da uztailaren 1ean eta Tolargi SLk lege ezarritako epeen barruan ordaindu beharko du.

Aipatutako data horietan, Tolosako Udalak dagozkion fakturak egingo ditu, kobratu beharreko zenbatekoarekin eta BEZarekin (ordaindu beharreko ordainsariak sortzen diren egunean indarrean dagoen araudiaren arabera).

2016ko ekitaldiari dagokionez, kontuan izanda 2016ko urtarrilaren 1ean Tolargi SLk mandatuaren xedea den jarduera egiten zuela, mandatuak atzeraeraginezko ondorioak izango ditu 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta ordainsariaren zati finkoa eta aldakorra egun horretatik aurrera sortuko dira. Horretarako, fakturak egingo dira uztailaren 31n eta abenduaren 31n, hurrenez hurren, eta Tolargi SLk lege ezarritako epeen barruan ordaindu beharko ditu.

Zazpigarrena.- Erantzukizuna

Tolargi SLk mandatuko funtzioak behar bezala egitearen erantzukizuna izango du, eta akatsen ardura bere gain hartu beharko du.

Zortzigarrena.- Indarraldia eta amaiera

Mandatu honek hogeita bost urteko indarraldia izango du, onartzen den egunetik, seigarren klausulako azken lerrokadan ezarritakoaren kalterik gabe, klausula hori dela-eta edo hurrengo lerrokadan zehazten diren kausetako edozeinengatik azkentzen ez bada.

Kudeaketa-mandatu hau azkendu egingo da:

- Bere indarraldia amaitzen delako.
- Udalak balio gabetzea adosten duelako.

Bederatzigarrena.- Mandatua aldatzea

Kudeaketa-mandatu hau Tolosako Udalaren erabaki bidez aldatu ahal izango da, haren xedea hobeto betetzeko beharrezkoa bada.

Hamargarrena.- Izaera eta erregimen juridikoa

Mandatu hau administratiboa da, eta, beraren interpretazioari eta garapenari dagokienez, aginduzkoa izango da antolamendu juridiko-administratiboa, eta alderdiek berariaz men egiten diote administrazioarekiko auzien jurisdikzioari.

2014/24/EB Zuzentarauaren 12. artikulua (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena) eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 24.6 eta 4.1.n) artikuluen arabera (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duena), eta TOLARGI, SL, Tolosako Udalaren berezko bitartekoa eta zerbitzu teknikoa denez, kudeaketa-mandatu hau aipatutako zuzentarau eta lege horien aplikazio-esparrutik kanpo dago.

Horren kalterik gabe, kudeaketa-mandatu honek kontratu-izaera du, eta ez da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikuluan aurreikusitako administrazio barneko mandatua.

10.Tolargi, S.L., Batzar Orokorren funtzioetan: Tolargiko Estatutoen aldaketa partziala -2.artikulua- eta kudeaketa gomendioa onartzea.

10.En funciones de Junta General de Tolargi, S.L., modificación parcial de Estatutos de Tolargi, S.L.(artículo 2) y aceptación de la encomienda de gestión.

Tolargi, S.L., udal enpresako batzar orokor Unibersalaren jardunean, Tolargi, SL., sozietaterko Aparteko Batzar Orokor Unibertsalaren deialdia egin delarik, kapital sozial osoaren bazkide

bakarra bertan delarik, Udalbatza eratuta, eta Ogasun Batzordearen diktaminena kontutan izanik, aho batez

ERABAKI DA

Lehena.- Gai zerrenda finkatzea:

1. Batzar Orokor Unibertsal gisan eratzea.
2. Tolargiko Estatutoen aldaketa partziala -2.artikulua- eta kudeaketa gomendioa onartzea.
3. Sozietateko Administrazio Kontseiluko lehendakariari ahalmena ematea publiko bihurtzeko hartutako erabakiak.
4. Bilkurako akta onartzea.

Bigarrena.- Sozietatearen Batzar Orokor Unibertsala eratutzat jotzea.

Hirugarrena.- Tolargi, S.L,ko Estatutoen 2.artikulua aldatzea, era honetan:

«2. artikulua - Sozietatearen helburua energia elektrikoa banatzea izango da. Helburu sozialaren jarduerak modu zuzenean egin ahal izango ditu Sozietateak, edo jarduera horien bitarteko lanak egin ahal izango ditu.

Sozietatearen kapitala titulartasun publikokoa da bere osotasunean, bere partizipazio sozialak Tolosako Udalarenak direlako, eta Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta zerbitzu sozialaren izaera du, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 24.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Bazkidea den Administrazio Publikoak lanak, zerbitzuak edo bere helburu sozialarekin lotutako beste edozein jarduera egiteko agindu ahal izango dio, dagozkion organoek kasu bakoitzean ezartzen dituzten termino eta baldintzekin.

Sozietateak ezingo du parte hartu Tolosako Udalak deitutako lizitazio publikoetan, nahiz eta, ez bada lizitatzailerik aurkezten, Udalak agindu ahalko dion lizitazioaren xede zen prestazioa ematea.»

Laugarrena.- Lehen plenoak erabakitako kudeaketa gomendioa onartzea.

Bosgarrena.- Ahalmena ematea Administrazio Kontseiluko lehendakariari, agertzeko berak hautatutako notarioaren aurrean eta publiko bihurtzeko aurreko erabakiak, izenpetuz bidezko dokumentu publikoak, baita konpontzekoak, zuzentzekoak, argitzeakoak, berrestekoak edo gehitzekoak ere; eta, era berean, eskatzeko bidezko idazpenak egin daitezela Merkataritza Erregistroan.

Seigarrena.- Onartzea, aho batez, idazkariak idatzitako bilkura akta, Sozietatearen Aparteko Batzar Orokor Unibertsalari dagokion guztian.

Lore Agirre Zipitria, EHBilduko zinegotzia irten egin da.

11.Tolosako Euskal Herria plaza 1 B eraikinean hotel-jatetxe-kafetegi zerbitzuak esleitzeko kontratazio espedientea onartzea.

11.Aprobación del expediente de contratación para la adjudicación de los servicios de hotel-restaurante-cafetería en el edificio 1-B de Euskal Herria plaza.

Partehartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): “Gure aldetik argi dago Tolosak daukan aktibidade bolumena ikusita, bai asteroko azokak, bai azoka bereziak, udazkenean sortzen diren ekitaldi andanak eta mordoak direla eta, abesbatzak, txotxongiloak, babarrun festa gozogileena, txuletarena e.a. badu behar bat Tolosak. Orain arte kanpotik zentoztenak lotan gelditzeko eskaintza falta bat agerikoa da. Azken urteetan horren jakitun izanda udala eta zentzu horretan argi genuen denon aurreko legealdian ere, espazio bat behar genuela lotarako. Alkatetzan geundenean sustatu eta saiatuko ginen proiektua aurrera ateratzen. Arazoa finantziazioa zen orduan, bankuak atea itxita zeuzkaten, ez zegoen inongo aukerarik, beldurra zelako nagusi, ea oraingoan egoera aldatzen den. Gogoan dut ere Euskal Herria plazako etxebizitza dotazionalak, gazteentzako etxebizitzak sustatu zirenean obra horri karga edo eraikinaren karga handienak egotzi zitzaizkion, bai teiltua bai fatxada minimizatzeke. Horrek lagundu zuen proiektu hau merkatzea baina hala ere egoerak ez zuen ahalbideratzen finantziazio iturri bilatzea eta ondorioz ez zen lortu ateratzea. Zentzu horretan proiektu honen garrantzia denok onartzen dugu. Gure ustez lote bakar batean atera beharko litzateke batzordean azaldu bezala, bai hotela eta bai jatetxea elkarrekin atera beharko lirateke konkurtsoa, zerbitzu osagarriak direlako. Gainera egin diren azterlanak erakusten du elkar konpentsatzen direla. Momentu batean batek edo besteak eduki ditzake hutsuneak eta zentzu horretan iruditzen zaigu lote bateratua hobea dela. Proiektu honek duen garrantzia dela eta, iruditzen zaigu estrategikoa dela herriko garapen dinamizazio ekonomikoari lagundu diolako. Dinamizatzaile den neurrian alde bozkatuko dugu nahiz eta nabarmendu lote bakarra egokia dela. Hala ere, bat egin dugu proiektu honekin iruditzen zaigulako bat egiteko garaia dela horrelako garrantzia duten egitasmoaren aurrean.”

... Alkatea: “Aurreko osoko bilkuran Euskal Herria plazan alojamendu kafetegi bat jarri ahal izateko kontzesio espedientea mahai gainean jartzen da eta hortan oinarrituta merkataritza sailak egiten duen azterketa batean, alojamendu eskari-eskaintzaren azterketa. Beraz, guretzat inportantea da, egitura garrantzitsua dela usten dugu alojamendu berri baten eskaintza egitea herrian. Helburua da, ostatu zerbitzu ematea eta horrek osagarri bezala du ostalaritza zerbitzua. Horretarako ostatu zerbitzu horri garrantzia eman nahian eta konkurrentzia handiena izan dadin planteatzen da horrela. Lehenengo lotea, ostatua bakarrik esleitu da. Hori hutsik geldituz gero hotel jatetxe kafetegia, dena osotasunean eskainiko litzateke eta hirugarren lotea ostalaritza jarduera bakarrik, lotuta egongo litzateke lehenengo lote horren esleipenarekin. Egia da Udalak horrelako jardueretan ez daukala esperientzi handiegirik. Planteatu den bezala alojamendu eskaintza hori egiteko ahalik eta modu egokienean, teknikariak egin dituztenen txostenen arabera. Beraz, eta lbaik aipatzen duen helburuarekin bat etorritik ea emaitzak positiboak izaten ditugun.”

Udalak hotel-jatetxe-kafetegiko zerbitzuak nahi ditu esleitu Euskal Herria Plazako 1B eraikineko behe solairu, 1. eta 2. solairuetan.

Hasiera batean, Udalaren helburua da bigarren solairuko hotela eta beheko solairuko eta lehen solairuko kafetegia eta jatetxea aparte esleitzea sektore bakoitzeko profesionali; horrenbestez, eta berez jarduera berezituak direnez, zerbitzu bakoitza bere aldetik esleitzea aurreikusten da. Alabaina, esleipen-prozedura horri jarraituz, arriskua dago kafetegi eta jatetxe zerbitzuaren emakida esleitzeko, jarduera horien etekin-tasa handiagoa izan ohi delako, eta, aldiz, hotel zerbitzuaren emakida hutsik geratzeko.

Hori dela eta, Udalaren hasierako helburua da hotel zerbitzua bere aldetik eta jatetxe-kafetegi zerbitzutik bereizita esleitzea. Alabaina, ostatu zerbitzuaren esleipen hori hutsik gera ez dadin, bigarren aukera izango da hotelaren kudeaketa jatetxe eta kafetegiaren kudeaketari loturik esleitzea.

Horregatik aurkeztu dira esleipen oinarriak modu honetara, mailaz maila eta baldintzapean:

1.- Lehenik eta behin, hotel zerbitzua esleitu da bereizita.

2.- Ostatu zerbitzua esleitzen bada, baliorik gabe utziko da hotel-jatetxe-kafetegi lote osoaren esleipena, eta jatetxe-kafetegi zerbitzua aparte edo bereizita esleitzeko prozedura abiaraziko da.

3.- Hotel zerbitzua ez bada esleitzen lizitatzailerik ez dagoelako edo lizitazio-proposamenak ez direlako oinarrian zehaztutako gutxieneko puntuaziora iristen, hotel-jatetxe-kafetegi zerbitzua

El Ayuntamiento pretende adjudicar los servicios de hotel-restaurante-cafetería en la planta baja, 1º y 2ª del edificio 1B de la Plaza Euskal Herria.

En principio, el objetivo del Ayuntamiento es que el hotel de la planta 2º y la cafetería y restaurante de la planta baja y 1ª se adjudiquen por separado a profesionales de cada sector, por lo que en principio al ser actividades diferenciadas se prevé la adjudicación de cada una de ellas separadamente. Ahora bien, siguiendo este procedimiento de adjudicación se corre el riesgo de que se adjudique la concesión del servicio de cafetería y restaurante, al tener esta actividad una tasa de rendimiento mayor, y quede desierta la concesión del servicio de hotel.

Por lo tanto, el primer objetivo del Ayuntamiento es que se adjudique el servicio de hotel de forma autónoma y separada al del Restaurante-cafetería. Ahora bien, a fin de evitar que el servicio de hotel quede desierto, se entiende que en un segundo orden su gestión debe estar asociada al del restaurante y cafetería.

De ahí que se presenten unas bases de adjudicación escalonadas y condicionadas:

1.- En primer lugar se adjudicará el servicio de hotel de forma autónoma.

2.- En el caso de que se adjudique el servicio de hotel, se procederá a dejar sin validez la adjudicación del lote conjunto del servicio de hotel-restaurante-cafetería y se procederá a adjudicar de forma autónoma el servicio de restaurante-cafetería.

3.- En el caso de que el servicio de hotel no se adjudique por falta de licitadores/ras o por cuanto las licitaciones no alcancen la puntuación mínima prevista en las bases, se

batera esleitzeko proposamenak irekiko dira. Kasu honetan, jatetxe zerbitzuaren esleipena ez da aparte eta modu berezitan egingo, eta, horrenbestez, kafetegi-jatetxe zerbitzua esleitzeko jasotako proposamenak baliorik gabe geratuko dira.

Gauzak horrela, ondorengo dokumentu hauek idatzi dira:

- Oinarri orokorrak, hotel-jatetxe-kafetegi zerbitzuak esleitzeko.
- Hotel zerbitzuaren lotea esleitzeko oinarri espezifikoak.
- Hotelaren kudeaketa arautuko duten baldintza teknikoaren plegua.
- Hotel-jatetxe-kafetegi zerbitzuaren lotea esleitzeko oinarri espezifikoak.
- Hotel-jatetxe-kafetegiaren kudeaketa arautuko duten baldintza teknikoaren plegua.
- Jatetxe-kafetegi zerbitzuaren lotea esleitzeko oinarri espezifikoak.
- Jatetxe-kafetegiaren kudeaketa arautuko duten baldintza teknikoaren plegua.

Ikusita Kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak eta Hirigintza Batzordeak 2016ko uztailaren 22an jaulkitako diktamena, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.-Onartzea Euskal Herria Plaza 1-B eraikinean hotel-jatetxe-kafetegi zerbitzuak esleitzeko oinarri orokorrak, obra publikoko emakida kontratuaren

procederá a la apertura de las proposiciones de la adjudicación conjunta del servicio de hotel-restaurante-cafetería. En este caso no se procederá a la adjudicación autónoma y de forma diferenciada del servicio de restaurante por lo que las propuestas recibidas para la adjudicación del servicio de cafetería restaurante quedarán sin validez.

Así las cosas, se han redactado los siguientes documentos:

- Bases Generales de la adjudicación de los servicios de hotel-restaurante-cafetería.
- Bases Específicas para la adjudicación del lote del servicio de hotel.
- Pliego de prescripciones técnicas que han de regir la gestión del hotel.
- Bases Específicas para la adjudicación del lote de servicio de hotel-cafetería-restaurante.
- Pliego de prescripciones técnicas que han de regir la gestión del hotel-cafetería-restaurante.
- Bases específicas para la adjudicación del lote de servicio de cafetería-restaurante.
- Pliego de prescripciones técnicas que han de regir la gestión del servicio de cafetería-restaurante.

Vista la correspondiente propuesta de contratación, la documentación que se acompaña, así como las demás circunstancias relacionadas con el asunto y el dictamen de la Comisión de Urbanismo de 22 de julio de 2016, el Pleno por unanimidad

ACUERDA

Primero.- Aprobar las Bases generales de la adjudicación de los servicios de hotel-restaurante-cafetería en el edificio 1-B de Euskal Herria Plaza mediante

bidez.

Kontzesioaren epea 30 urtekoa izango

Onarpen hau baldintzapean ematen da. Hau da, baldin eta alegaziorik aurkezten ez bada hotel-jatetxe-kafetegi zerbitzuak ezartzeko bideragarritasun planaren eta eraikitzeko eta ustiatzeko aurreproiektuaren jendaurreko tramitean.

Bigarrena.-Onartzea Euskal Herria Plaza 1-B eraikinean egokitzekoa den hotel zerbitzuaren lotea esleitzeko oinarri espezifikokoak eta hotelaren kudeaketa arautuko duten baldintza teknikoaren plegua.

Hirugarrena.-Onartzea Euskal Herria Plaza 1-B eraikinean egokitzekoa den hotel -kafetegi-jatetxe zerbitzuaren lotea esleitzeko oinarri espezifikokoak eta hotel-jatetxe-kafetegiaren kudeaketa arautuko duten baldintza teknikoaren plegua.

Laugarrena.-Onartzea Euskal Herria Plaza 1-B eraikinean egokitzekoa den kafetegi-jatetxe zerbitzuaren lotea esleitzeko oinarri espezifikokoak eta Jatetxe-kafetegiaren kudeaketa arautuko duten baldintza teknikoaren plegua.

Bosgarrena.-300.000 €ko (hirurehun mila euro) gastua baliatzea, 2016ko ekainaren 28an hasierako izaeraz onartu zen kreditu aldaketaren kargura. Kopuru hau Udalak eman dezakeen gehieneko diru-laguntza edo birgaitze obren ekarpena da.

Seigarrena.-Adjudikatze prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea DOUEan, Estatuko Buletin Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailerearen profilean.

contrato de concesión de obra pública.

El plazo de la concesión será de 30 años.

Aprobación condicionada a que, en el trámite de información pública del estudio de viabilidad y el anteproyecto de construcción y explotación de los mencionados servicios de hotel-restaurante-cafetería, no se presente alegación alguna.

Segundo.-Aprobar las Bases específicas para la adjudicación del lote del servicio de hotel a habilitar en el edificio 1-B de Euskal Herria Plaza, y el Pliego de prescripciones técnicas para regir la gestión del hotel.

Tercero.-Aprobar las Bases específicas para la adjudicación del lote del servicio de hotel-cafetería-restaurante a habilitar en el edificio 1-B de Euskal Herria Plaza, y el Pliego de prescripciones técnicas para regir la gestión del hotel-cafetería-restaurante.

Cuarto.-Aprobar las Bases específicas para la adjudicación del lote del servicio de cafetería-restaurante a habilitar en el edificio 1-B de Euskal Herria Plaza, y el Pliego de prescripciones técnicas para regir la gestión de la cafetería-restaurante.

Quinto.-Habilitar el gasto de 300.000,00 €, como subvención o aportación máxima a las obras de rehabilitación que puede otorgar el Ayuntamiento, a cargo de la modificación de créditos a probada inicialmente el día 28 de julio de 2016.

Sexto.-Iniciar el procedimiento de adjudicación y, a tal efecto, remitir anuncio al DOUE, BOE, BOG y al perfil del contratante.

Proposamenak aurkezteko epea, 52 egunekoa da, iragarki DOUEan argitaratzen denetik zenbatuta.

El plazo de presentación de las propuestas será de 52 días contados desde el envío del anuncio de licitación al DOUE.

12.Tolosako udalerrian kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

12.Modificación de la ordenanza reguladora de la venta ambulante en el municipio de Tolosa.

Partehartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente, EHBilduko zinegotzia: *“Hemen aurkezten dena guretzat tramite hutsa, azken finean ordenantzaren aldaketa puntuala dena, Onartuko dugun hau badirudi oso sinplea dela, baina honen atzean dagoen lan itzela azpimarratu nahi dut. Honetara iristeko Zerkausiko eta azoketako produktuak saltzen dituzten nekazariekin eta pertsona guztiekin elkartea sortzea adostu zen. Ordenantza honen lanketa egiteko beraiekin konpartitu zen, azken urteetan lan izugarria egin da Tolosako azokaren dinamizazioan. Hor daude sukaldatzen postu horiek eta lan guztien horren arduraz azoka dinamizazioan. eraman duen pertsona, azkeneko hiru, lau urteetan buru belarri aritu dena, Arrate Iturbe da. Gure aldetik eskertza bihotzekoena, sentikorrena, kriston lana egin duelako. Bere ondorioa, gaur guk onartuko duguna da. Baina honen atzean izugarritzko lana dago, maitasunekin egindako lana, guretzat altxor bat den lan indartsua egin du eta eskertu egin behar da egin duen lan guzti hori. Eskertzea egokitzen zait joan zaigulako, niretzat pena da joan izana. Horrelako perfila duen pertsona bat topatzea ez da erreza, eta zentzu horretan arduraz ikusten dut lanpostua hutsa dagoelako.Gure eskertza adierazi Arrate Iturberi.”*

... Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV) Merkataritza, Azoka eta Turismo batzordeko lehendakaria: *“Tolosako Azoka, lehenengo sektoreko jarduera, produktu eta profesionalen erakusle, eta udalerriko eredu ekonomiko eta sozialaren oinarrietako bat da; gure ondare natural eta kulturalaren babesle. Azokak eragin zuzena du Tolosako ekonomia eta gizartean, eta beraz, ezinbestekoa da Azokako ekoizle eta saltzaileen alde egitea, eta hauen lana eta balioa goraipatu eta ikustaraztea.*

Azokak indartu eta sendotzeko helburuarekin, Udalak Azoka eta honekin erlazionaturiko eragile ezberdinekin lankidetzan dihardu. Honen eredu da adibidez, 2016ko ekainean Tolomendi Landa Garapen Elkartearekin sinatutako Lankidetzako Akordio Markoa, non, besteak beste, honako helburu nagusiak zehazten diren:

- Azokaren esentzia oinarri hartuta, aktibitate ekonomikoa indartzea.

- Azokaren ezagutza bultzatzea gizartean.

- Azokako eragileen antolaketa eta elkarlana bultzatzea, Garaikoa Elkartearekin, hala nola beste baserriar azokekin eta tokiko ekonomiarekin zerikusia duten beste sektoreetako eragileekin.

Aldi berean, orain gutxi aurkeztu berri den Euskal Herriko Unibertsitateak egindako Tokiko nekazarien azoken eragin ekonomiko eta sozialaren azterketak Gipuzkoako lurraldearen elikadura estrategia baten eremuan , argi uzten du azokak bai Gipuzkoan eta Tolosan duten inpaktu positiboa, tokiko ekonomia eta gizartean. Ikerketa honek, Tolosako Udala eta Tolomendirekin bat datozen lan ildo batzuk irudikatzen ditu, eta hauek garatu ahal izateko, ezinbestekoa da eragile eta instituzioen arteko elkarlana.

Udalak, Tolomendirekin eta Garaiko Elkartearekin elkarlanean, Tolosako Azoka sendotzeko helburuarekin, lanketa ezberdinak burutzen ari da. Honen artean aurkitzen da azoken

kudeaketa, eta beraz, kudeaketa hau hobetu eta erraztuko duten tresnen eta araudien berrikuspena ezinbesteko da. Lanketa honek lehenengo sektorearentzako onura handiak ekarriko ditu, eta aldi berean, Tolosar guztiontzako. Testuinguru honetan, eta esan bezala, azokak indartzeko helburuarekin, oraingo honetan 2003eko irailaren 30ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Tolosako Udalerrian Kaleko Salmenta arautzen duen Ordenantzaren modifikazioa aurkezten dugu. Ordenantza honek merkataritza establezimendu finkoetatik kanpo egiten diren salmentak arautzen ditu, hala nola, larunbateko azokak eta azoka bereziak.

Ordenantza honetan barneratzen diren aldaketa hauek Tolomendi eta Garaiko Elkartearen adostasuna eta onespena dute, eta beharrezkoak kontsideratzen dira egun azokek bizi duten erronka berrietara ahalik eta hoberen aurre egiteko eta egokitzeko helburuarekin.

Ordenantza honetan barneratutako aldaketak, Zerkausi, Atadi eta Berdura Plazako merkatuei dagokie, hau da, II. Eranskinean barneratuko edukiei. Aldaketa nagusiak honakoak dira:

- Lehendabizi, orduteqiari dagokionean, ordenantzan zehaztutako ordutegia Alkatearen Dekretu bidez aldatzeko aukera sartzen da; honek malgutasuna ematen du, bai ekoizle, saltzaile eta erosleen onurako izanik. Honekin lotuta, ordenantzan zehaztutako ordutegian aldaketa txiki bat barneratzen da baita ere, kargaren 2. txanda 13,15etan izatetik, 13,30era izatera.

- Bestetik, azoketan saldutako produktuen jatorria ezagutzea eta honen bertakotasuna bermatzea Udalaren eta Tolomendiren lehentasunetako bat da, eta beraz, aspektu honi garrantzia ematen zaio Ordenantza honetan bi aldaketa zehatz barneratuaz.

- Barneratutako beste aldaketa, baimenen iraupenarekin erlazionaturik dago. 2003an aprobatutako Ordenantzak, urte beteko baimena zehazten zuen, Atadiko merkaturako postuak salbuespen izanik. Aldiz, Ordenantzaren eguneraketa honek, salbuespen hau denboraldiko produktuak saltzen dituzten saltzaileei luzatzen zaie baita ere. Aldi berean, zehaztaperen berri bat barneratzen da, Udalak postuen adjudikatzerakoan urte osorako diren postuen kokalekua lehenetsiko duenari. Izan ere, denboraldi jakin bateko postuak izatekoak azokan epe jakin batzuetan hutsuneak sortzea suposatzen du azokan, eta non ekiditea garrantzitsua da.

- Udalaren beste lehentasunetako bat, Tolosako azokaren irudia eta marka indartu eta sendotzea da, eta horregatik, azokako logoa duten poltsak erabiltzea derrigorrezkoa izango da larunbatetako azokan. Salbuespena izango da, ekoizle edo saltzaile berak bere marka propioa baldin badu eta beti ere poltsa horiek konpostagarriak.

- Tasen ordainketen inquruan, Ordenantzaren eguneraketak kuota desberdinak ezartzen ditu, bai ekoizle edo saltzaile izanaren arabera. Alde batetik mahai bakoitzeko kuota finkoa/egunekoa ezartzen da, eta bestetik, ekoizle edo saltzaile izateagatik. Kasu honetan, ekoizle izaeraren definizio berri bat sartu da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren definizioarekin bat datorrena, eta definizio honetan, egun Azokan ditugun saltzaile asko ez dira barneratzen.

Hori dela eta, testu berri bat eransten zaio artikulu horri, non nahiz eta ez bete aurreko artikuluan aipatutako baldintzak, norberak ekoiztutako produktuak saltzen dituenak ekoizle izaera izango du, baldin eta ordenantza hau indarrean jarri aurretik Zerkausiko azokan postua badauka.

Udalak postu guztiak errebisatuko ditu, hauen ekoizle edo saltzaile izaera duten edo ez zehazteko.

- Azkenik, ekoizle eta baserritarren elkartzeari garrantzia emateko helburuarekin, 15.3. artikuluan aldaketa bat barneratzen da, azokako ekoizle eta saltzaileak beraien kezkak edo/eta proposamenak banaka adierazi beharrean, aukera izan dezaten Garaiko Azokako

baserritar, ekoizle eta saltzaileen Elkarteko Batzordearen bitartez egiteko.

Eta Ibaik esan duen bezala, hau sekulako sukaldeko lan bat izanda hona iristeko, bertan baserritarrak, baita dinamizatzailerak buru belarri aritu da, baita udal teknikariek ere. Denei eskertu azkenean adostasun batera iritsi garelako. Sukaldeko lan hori oso inportantea da. Tolomendin momentu honetan hutsune bat dago. Arrate beste enpresa batera bideratu da, bere ikasketarekin lotutako lanpostu batetara joan da. Momentu honetan Tolomendi eta udalaren ardura da. Elkarrizketak ezberdinak egin dira, eta suposatzen da irailean pertsona berri bat izango dugula”

Tolosako udalerrian kaleko salmenta arautzen duen ordenantzan hutsune batzuk zeudela eta, aldaketa batzuk egitea proposatu da.

Hori horrela, proposamena aztertu eta Merkataritza, Feriak eta Turismo batzordearen diktamenarekin bat etorri, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespina ematea Tolosako udalerrian kaleko salmenta arautzen duen ordentzan egindako aldaketei, aurkezten den txostenaren arabera.

Bigarrena.- Aldaketak jendaurrean jarrita edukitzea 30 lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Hirugarrena.- Aurreko atalean aipatutako epearen barruan ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, proposatutako aldaketak behin betiko onartutzat jotzea.

Visto que había algunas lagunas en la ordenanza reguladora de la venta ambulante en el municipio de Tolosa, se proponen realizar algunas modificaciones.

Estudiadas dichas modificaciones, de conformidad con el dictamen de la comisión de Comercio, Ferias y Turismo, el Ayuntamiento pleno, por unanimidad,

ACUERDA

Primero.- Aprobar inicialmente las modificaciones de la ordenanza reguladora de la venta ambulante en el municipio de Tolosa que se han señalado en el informe.

Segundo.- Someter las modificaciones al trámite de información pública, durante el plazo de 30 días hábiles, contados desde el día siguiente a la publicación del correspondiente anuncio en el B.O.G., para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

Tercero.- Considerar que, si en el plazo señalado en el apartado anterior no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entenderán definitivamente aprobadas las

modificaciones propuestas.

13.Bide publikoan Terrazak jartzea arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

13.Modificación de la ordenanza Reguladora de la Instalación en la vía Pública de Terrazas.

Nerea Letamendia Beloso(EAJ-PNV) Merkataritza, Azoken eta Turismo batzordeko lehendakaria: "2011ko ekainak 8an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean "Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza" argitaratu zen. Orain, 5 urte pasa eta gero, espazio publikoarekin erlazionatutako behar berriak identifikatzen dira udalerrian, eta hori dela eta, Ordenantza honen modifikazioa egiten da.

Eta zeintzuk dira behar berri hauek? Eta zer bilatzen du Udalak Ordenantza aldaketa honekin? Tolosa, tolosar guztiek eta bisitariak disfrutatuko duten udalerriri atsegina eta eroso izatea du helburu; bai aisirako, erosketetarako eta udalerrian antolatzen diren beste ekitaldi askotarako.

Helburu hau lehentasunekoa da eta honela isladatzen da baita ere Udalak Tolosa&Co merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu Elkartearekin 2016ko martxoan sinatutako lankidetzako akordio markoaren barnean. Bai Tolosar, bisitari eta herriko merkataria eta ostalarientzako, ezinbestekoa da kale atsegina eta txukunak izatea, pasiatzeko erakargarriak direnak, eta beraz, Tolosan bide publiko antolatu eta garbi bat bermatuko duen lanketan dihardu Udalak. Bide publikoak erronka berriak dakartza, eta hauei aurre egiteko planteatzen da "Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal Ordenantza" honen modifikazioa. Esan bezala, guztion onurarako, eta nola ez, Tolosako garapen ekonomiko eta sozialaren bidean. Testuinguru honetan, eta azkeneko helburu hauek buruan izanda, Ordenantza hau aldatzea erabakitzen da, zehazki, ondorengo arrazoi nagusiengatik:

Egun bide publikoan gero eta gehiago ikusten dira erakuslekuen bidez jarritako saltokiak, eta, jarduera komertzialen elementu osagarriak (dekorazio elementu eta kartelak). Jarduera horiek ez daude araututa eta, beraz, ez daude inolako irizpiderik egoera horiek kudeatzeko eta baimentzeko.

Hemen onartzen dugun ordenantzak ordenantza fiskaletan ere, eragina izango du batzordean aipatu genuen bezala. Merkataritza, Azoken eta Turismo batzordeak proposamena egingo dio Ogasun batzordera urrian plenora ekartzeko.

Bide publikoan gero eta gehiago ikusten dira erakuslekuen bidez jarritako saltokiak eta jarduera komertzialen elementu osagarriak (dekorazio elementu eta kartelak).

Jarduera horiek ez daude araututa eta, beraz, ez daude inolako irizpiderik egoera horiek kudeatzeko eta baimentzeko.

Horrela, jarduera horiek arautzeko bi aukera daude, bi gai horiek arautzeko ordenantza bat egitea, edota "Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza" egokitzea bi

gaiak uztartuz.

Ikusita beste udal batzuetan egindako arautegiak komenigarriagoa ikusten da “Bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza” aldatzea, izan ere ez du zentzu handirik bi ordenantza izatea lurzoru publikoen okupazioari buruz. Horrela, Ordenantza honen titulua aldatu egingo da, ondoren adierazten den moduan: “Bide publikoan terrazak, produktuen salmenta erakuslekuak eta jarduera komertzialen elementu osagarriak jartzea arautzen duen udal ordenantza”.

Gainera bi lurzoru publikoaren okupazio berriak arautzeaz gain, terrazan inguruan zehaztaperen berri bat barneratzea beharrezkoa ikusten da; Udalak bide publikoan antolatutako ekimen konkretuetan, okupazio baimena errebisatzeko aukera (larunbatetako azokak, festak...).

Honekin batera, tasa fiskalen ordenantzara egokitzeko aldaketa bat barneratu beharra ikusten da, lizentziaren iraupenari dagokionean.

Azkenik, arau-haustearekin loturiko artikuluen kasuan, isun kopuruak aldatzea beharrezkoa ikusten da.

Hori horrela, kontutan izanik Merkataritza, Feriak eta Turismo batzordearen diktamena, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen ordentzan egindako aldaketei.

Bigarrena.- Aldaketak jendaurrean jarrita edukitzea 30 lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Hirugarrena.- Aurreko atalean aipatutako epearen barruan ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, proposatutako aldaketak behin betiko onartutzat jotzea.

14.ACEX, Eskolaz Kanpoko Ekintza Osagarrien Programaren inguruan EHBilduk aurkeztutako mozioa.

14.Moción presentada por EHBildu relativa al programa ACEX (Programa de Actividades Extraescolares y Complementarias).

Partehartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Saiatu gara adostasuna lortzen aurkeztu dugun mozio honetan baina ez dugu lortu. Ikuspegi guztiz desberdinak egoeraren jatorriaz, ulertzen dut neurri batean gobernatzen ari direlako. ACEX programa berezia da, jatorriz kurioso, irakasleei irtenbide bat emateko sortu zena. Dena den, ondorio positiboak izan ditu*

hezkuntzan, oso programa maitea da nolabait hezkuntza osagarri baten ekimena, matematika, fisika eta kimika haratago, beste jakintzak garatzeko modu bat delako, hezkidetzeta, liburutegi programa, arte plastikoak. Bereziki interesgarria da eskola publikoan hainbat familiei, krisi ekonomikoa bizi garen honetan, aukera eman die bere seme alabei sakontzeko hezkuntza prozesua, ez bakarrik formalean, beste ahalmen batzuk garatzeko, hainbat aspektu lantzen direlako programa honekin. Itxura batean arazo ekonomikoak medio, Jaurlaritzako hezkuntza sailak programa hori murrizteko bidean dago, plazak irakasleak jubilatzen diren heinean ez dira berritzen, lanaldiak murriztu egin dira. Gertatu berria da Orixen institutuaren kezka ere badago, dagoen pertsona jubilatuta egingo delako. Eta kontestu horretan aurkeztu dugu mozioa. Gizarte honen jakintza etorkizuna pentsatzen dugu hezkuntza murrizketa politiketatik kanpo egon behar duela, inbertsio bat da. Inbertitu egin behar da. Azken urteetan ikusten ari gara jakintza inbertsioan murrizten ari direla, jaitsi egin da EAEn produktu gordinarekiko inbertitzen den kopurua. Hori dela eta, aurkeztu dugun mozioa EAJren mozioak gure ikuspegitik ez dio heltzen muinari, gainera asko zentratzen da liburutegiaren kasuan eta hori bakarrik ez gara ari aztertzen. ACEXek beste jardueri ere eragiten die. Eta EAJ mozioaren kontra egingo dugu, gurea ez da bozkatuko. Uste dugu nahikoa sendotasunez aldarrikatzen dituela Tolosan eskola publikoak duen beharrak.”

... Jokin Azkue Arrastoa (EAJ) “Gure postura ez da zuen kontrakoa gu gobernua gaudelako. Guk ACEX bera ez dugu zalantzan jartzen, guk esaten dugu baloratu egin behar dela; hogeitau urte alperrik ez dira pasa. Programa hau sortu zen, hain zuzen ere, zenbait irakaslek, egiaztatu gabe zeukatelako hizkuntza eskakizuna eta ezin izan zutenak hezkuntza sisteman kurrikuluma txertatu eta horientzako lan osagarri bat sortu zen. Plaza horiek egon dira eta hemen planteatzen dena da, 20 urte pasa direnez, eta gaur egun ACEX programa horren baitan ikastetxe bakoitzak funtzio jakin batzuk betetzen dituzenez, aztertu. Pentsatzen dugu hezkuntzako komunitateak behar duena izan behar duela, guk ez dugu esaten dagoelako jarraitu egin behar duenik, hori zuek esaten duzue. Badagoela, baloratu egin behar dela, eta beharrezkoa bada diru baliabideak jarri egin behar direla. Eta balorazioa egiterakoan ikastetxearen diagnostikoa kontutan hartu behar da, kontutan hartu behar da ACEX barruan dauden irakasleen ezaugarri profesionalak, batzuk era batera edo bestera espezializatzen ari direla eta horren baitan erabakiak hartu. Jaurlaritza osoan aurrekontuak igo egin dira. Gauza da ez dagoela programa edo gauza guztietako dirua, horregatik baloratu egin behar dira eta horren baita egokitu. Guk esaten dugu beharrezkoa bada egiteko; ez dugu esaten kendu behar denik arazo ekonomikoak daudelako. Premi handiak daude, udalean ere ikusten dugu, gauzak dextente ezin ditugu egin. Ditugun baliabideak mugatuak ditugulako. Orduan hori eskatzen dugu, baloratu eta hezkuntza programa Irakurzaletasuna indartzeko programa eta azken urtea hauek programa ugari egin ditugu, diferenteak, hori dena ikusi egin behar da nola txertatzen den eta hemen ez da planteatzen. Guk esaten dugu baloratu egin behar da Hezkuntza komunitateari iritzia entzunda eta erabakiak hartu.”

Lehenik Idazkariak EHBilduk aurkeztu duen mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

“ACEX (Eskolaz Kanpoko Ekintza Osagarrien Programa) duela 20 urte sortu zen lan-arazo batzuei irtenbidea bilatze aldera eta urteen poderioz bilakaera handia izan du, ikastetxeen beharrezko pedagogiko batzuei konponbidea eskaini baitie. Egun, ikastetxe publiko askotan ezarrita dago eta eskolaz kanpoko ekintza ugari posible egiten ditu. Horien artean,

liburutegi-zerbitzua edota arlo artistikoarekin loturiko ekintzak aipa daitezke.

Eusko Jaurlaritzak programa horiek murriztea erabaki du. Tolosan bertan ere nozitu da murriztea. Samaniego eskolan liburutegi-zaintzarako lanaldi osoko lanpostua lanaldi erdiko bihurtu berri baita. Itxura batean, irizpide ekonomikoa hezkuntzaren kalitatearen irizpideari gailentzen ari zaio kasu honetan.

Erabaki honen ondorioak larriak dira:

- *Behin behineko langile askori eragingo dieten lan-orduen murrizketa nabarmena dakar.*
- *Haurren heziketa prozesuan atzera pauso nabarmena izango da. Programa hauek aukera ematen diete ikasleei beste ahalmen batzuk garatzeko; besteak beste hezkidetzak, elkartasuna, sozializazioa, behar bereziak... Gure iritziz, hezte-prozesua ez da mugatzen ikastorduetara; ekintzok haurren aisialdian heziketa-prozesua aberasten dute eta irakasleen lanaren osagarri dira.*
- *Hezkuntza inklusiboaren printzipioa kolokan jartzen du. Programa hauek ikas-komunitateko eragile ezberdinen parte-hartzea eta elkarlana sustatzen dituzte eta doako eskaintza izanik, familia orok parte har dezake egoera ekonomikoa horretarako muga izan gabe. Integrazio eta sozializatorako ezinbesteko espazioak dira, egoera soziokultural eta ekonomiko larrietan bizi diren familia askorentzat gotorleku eta aukera izan daitezkeenak.*

Hezkuntza-komunitateko parte handi batek salatu du erabaki hau, sindikatuek eta guraso-elkarteek tartean.

Gure iritziz, eskola-liburutegien gisako egitasmoak desagerrarazteko trantzean ipintzea onartezina da. Kulturari, jakintzari, hizkuntzari edota identitatearen eraikuntzari ateak ixteak atzera pauso nabarmena dakar ikasleen garapen-prozesuan eta ondorioz gizartearen eraikuntzan.

Hau guztia kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen diogu:

- *Ez dezala programa hau bere horretan ezabatu eta errepara diezaiela ezabatzeak eragiten dituen albo-kalteei.*
- *Eskain ditzala alternatiba egokiak*
- *Hezkuntza murrizketa-politikek at utz dezala, oinarrizko eskubide unibertsala den heinean.*
- *Hezkuntzari dagokion erabaki oro hezkuntza-komunitatearekin eztabaidatu eta adostu ditzala.*
- *Azkenik, babesa adierazi nahi diegu programa hauen biziraupena bermatu eta babestu nahian lanean dabiltzan hezkuntza-komunitateko kide guztiei."*

Jarraian, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztu duen mozio alternatiboa irakurri da. Honela dio:

“ACEX programaren etorkizunari buruzko EAJ-PNVren mozioa

ACEX (Eskolaz Kanpoko Ekintza Osagarrien Programa) duela 20 urte sortu zen euskara ez zekiten irakasleei, hizkuntza eskakizuna eskuratu ez zuten irakasleei, lan irtenbidea emateko. Erabaki horrek ez zuen bestelako oinarririk, ikasleei begirako arazoak konponbidean jartzeko baino gehiago izan zen irakasleei irtenbide bat emateko urratsa. Urteen poderioz bilakaera bestelakoa izan da, ikastetxeen beharrizan pedagogiko batzuei konponbidea eskaini baitie. Egun, ikastetxe publiko askotan ezarrira dago eta eskolaz kanpoko ekintza ugari posible egiten ditu. Horien artean, liburutegi-zerbitzua edota arlo artistikoarekin loturiko ekintzak aipa daitezke. Horiek horrela aitortu behar da bere garrantzia duela programa honek.

Halere, egungo legediaren bilakaerak, ikasleei begira sustatzen diren irakurtzeko ekimen berriak, ikastetxeei eskaintzen zaizkien programa berriak, irakasleek duten prestakuntza eskaintza, Euskadiko herri liburutegiekin abian jarriko diren planak eta e-liburutegien garapenak eskatzen dute birpentsatzea eta hausnartzea aurrera begira irakurzaletasuna sustatzeko programa osoaren ibilbidea.

Eusko Jaurlearitzak programa horiek murriztea erabaki du. Samaniego eskolan liburutegi-zaintzarako lanaldi osoko lanpostua lanaldi erdiko bihurtu berri baita. Itxura batean, irizpide ekonomikoa hezkuntzaren kalitatearen irizpideari gailentzen ari zaio kasu honetan.

Horiek horrela, Tolosako udalak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailari eskatzen dio, ACEX programaren etorkizuna baloratzerakoan, kontuan har ditzala:

- 1.- Hezkuntza zentro bakoitzak programa honen inguruan egiten duen diagnostikoa.*
- 2.- ACEX programan parte hartzen duten profesionalen ezaugarriak.*
- 3.- ACEX programa egokitzen joango bada, trantsizio bide bat jorratu behar dela beti ere hezkuntza komunitatearen premiak asebetez eta inolaz ere hezkuntza defizita sortu gabe. Azken helburua delako irakurzaletasuna indartzea eta beste zenbait programen helburuak mantentzea edo indartzea: hezkidetzak, elkartasuna, sozializazioa, behar bereziak dituztenei arreta eskaintzea”.*

Beraz, mozio alternatiboa bozketara jarri eta, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE(1) alderdien aldeko botoekin eta EHBILDU (6) alderdiaren aurkako botoekin, gehiengoz, **onartu da.**

**15. Tolosako Alderdi sozialistak
komunitateko auto-konpostagailuen
inguruan aurkeztu duen mozioa.**

**15.Moción presentada por el Grupo
Municipal Socialista relativa a los
autocompostadores comunitarios.**

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): “Adostutako mozioa jendearen kexen ondorioz dator. Mozio honetan eskatzen dugu kexen horien ondorioz ikerketa bat egitea. Kexa gehienak usaiak, eltxoak, arratoiak, e.a. Hau da, autokonpostagailuen egoera oso txarra dela eta, ikerketa egitea eta horren ondorioak mahai gainean jarri eta erabakiak hartu.”

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): "Lehenik eta behin Tolosako Agrupación de Tolosa del PSE-EE aurkezturiko mozioa irakurriko dut, erretiratu izan dena EAJ alderdiarekin adostutakoa sartu dutelako:

"Tolosako Alderdi Sozialistatik Amarotz, Allirí, Zabalarreta eta Larramendin dauden komunitateko autokonpostagailuak, epe oso laburrean kentzea eskatzen dugu arrazoi hauengatik: Erabilera urria; sortzen den konpostaren erabilpen balio eskasa; mantentze-lan koste altua; bere osasungaitasunagatik. Usain oso txarra eta eltxo eta beste intsektuen ugaripena, udako tenperatura handiengatik sortzen ditu."

Hau da mozioaren oinarria, gero EAJ eta PSE adostutako mozio alternatiboa aurkezten da. Kurioso da bihar errauskailua egiteko baldintza pleguak onartuko diren egunean, hau da 35 urte gipuzkoarrak azpiegitura erraldoi eta zor izugarri baten aurrean hipotekatuko gaituzten obraren bezperan, auzokonpostagailuko mozio hau aurkeztea. Kasualitatez Jose Ignacio Asensio, errausgaile bultzatzailea den nagusia, zinegotzi ohia, nahi arro gorai patzen ari den azpiegitura honen beharra, errauskailuari Ingurumen zentro deitzen dio. Guretzat horrela deitzea kontra sentido bat da, arma inteligente bat. Hala ere mozioaren honen arazoia errauskailuari monstuari jaten emateko, bere labeak asetzeko Zentzu horretan kurioso da PSEk ez duelako ezta formak zaintzen, hurrengoan izango baita berziklatzen aurka zaudetela, zer errauskailuak behar du zer erre. Nahiz eta oraindik ez jakin zer egingo den bertan ateratzen direnekin. Ulertzen dut nahiko egoera inkomodoan jarri duzuela EAJ eta horregatik lortu duzuela oinarritzko mozioa kentzea eta azterketaren inguruko hausnarketaren inguruko mozioarengatik aldatzea. Kurioso da zuek udalean sartu zinetenean auzokonpostako kide zirenek esan zidaten nola udaletxetik hasi zitzaizen deitzen baita batzordeburu bera. Patxi, jakiteko auzokonposta hauek zer nolako arrakasta zuen partehartzaileen artean. Niri ulertarazi zidaten arabera, kentzeko asmoz egiten ari ziren dei horiek baina azkenean ez zenituzten kendu. Beraz orain azterketa berriz egitea kurioso da agian PSEn eskaeraren aurrean, albotik, azterketa erabili nahi duzuela justifikazioa bilatzeko auzokonposta gune hauek kentzeko. Lehenago, Jokin aurreko mozioan ACEXen aurreko mozioan, baloratu egin behar dugu erabakiak hartzeko, erabakiak hartu dira murrizketak izan direlako, eta kasu honetan ondorioak hizkuntza bat erabiltzen dugu sarritan, baloratu, ikertu. Gure ustez autokonposta eta auzokonposta, urteak dira jarri zela sistema eta kudeaketa egokiak dira Horrek ez du esan nahi hobeto egin ez dezakegunik. Baina ongi kudeatzea, usaiak, arratoiak, kandaduak egotea, txukun mantentzea, horren ardura udalarena da. Udalak bermatu behar du hori egiten dela beste herriko zerbitzuekin bezalaxe. Kudeaketa eta arazo horiek ez dira auzokonpostagailuak txarrak eta desegokiak direlako baizik eta horren ardura dauka erabiltzaileak, administrazioak. Ezin dugu kudeaketa txar bat erabili sistema egoki bat kentzeko. Sistema ona dela delako modu egokiena, sortzen ez den hondakina eta sorgune bertan kudeatzen delako merkeagoa da, CO2 isurketak mugatzen dira, garraiatu behar ez delako, tratamendu gastuak mugatzen dira eta konzientzia sortzen du. Gogoratu egin behar dut Udalak sinatuta dauzkan itunak, Copenhague eta Pariseko itunak ere, bere burua behartzen duen proposamen eta egitasmoa, Tolosak 2020. urterako 3 konpromiso hartu ditu: energiaren kontsumoa % 20an gutxitzea, energi berriztagarrien erabilera %20an handitzea eta CO2 isurpenak %20an gutxitzea.

Beraz, auzokonpostagailuak autokonposta gastu ekonomikoa murriztu egiten ditu, ez dauzkalako, garrarioak ordaindu behar, tratamendu kudeaketako gastuak, CO2 isurketa murriztu kontzientzia Dena hobetu daiteke, ikerketa ikerketa egin behar da nola hobetu daitezken egokia izan dadin, eta gure ustez eskaerak dauden neurriak aukera zabalitzea aztertzea eskatuko genuke. Gero eta berziklatu gehiago egin, kalitate gehieneko frakzioak bildu, ordun eta etorkizun orekatua, hobea eraikitzen ari garelako guretzat ondorekoentzat eta gure ardura delako, norbanakoa. Adostu duzuen e

Bestalde, Cristian, koste ekonomikoa aipatzen duzu, lore zaintzako baldintza pleguetan horrelako dagoelako, zerbitzuaren barne dago kudeaketa ere, beste zerbitzuetan ematen

den bezala, lore edo jardineritza mantenuan barneratuta dago.

Usaia eta aipatzen du baina zuen ardura da Zuen kideon ardura da hori ez gertatzea eta zuek ez dituzuenak egitearen ardura bestei ez bota. Zintzoki iruditzen zait ondo idatzi duzuela, argi ikusten baita zer nahi duzuen, dena erre. Mozioa eta jarrera hau iraganekoa dela, errauskailua bezalaxe. Bestalde, azkenean aurkeztu duzuen mozioa irtenbide, erdibidekoa, aurreko mozioan bezala, aztertu eta baloratu beharreko arazoa dela baina jada erabakia idatzia dagoela. Guk ez dugu zuen alde egingo, ikertu behar dena eta garatu behar dena eta zer hobetu badagoela, baina uste dugu bide honetan jarraitu behar dela eta zentzu horretan zuek ere onartu behar zenutela guk aurkeztu duzuen mozio hori”.

- ... Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV): “Urtea pasa dira baina badirudi urte gehiago pasa behar dutela zenbaitek ez baitute ulertzen zer desberdintasuna dagoen bilketa eta tratamenduan, Bilketa Udalari dagokio eta tratamenduan beste gauza bat da. Azkeneko momentuan jaso dut zuen mozioa baina aztertzen joango naiz. Uste dut gurean ere, azaltzen dela baina irakurri egingo dut:

Tolosako udalak sistema hobetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du eta hau parte hartzaileekin batera garatuko duela hitz ematen du. Erabat ados

-Tolosako udala, ahalik eta gehien birziklatzearen alde eta ahalik eta kalitate gehieneko frakzioak biltzearen alde lan egingo du.” Erabat ados hori ari baikara egiten.

Bestalde, esaten duzue eta horregatik esango dugu ezetz seguru aski: ;Auzo konposta hobetzen jarraitzeko ikerketa bat burutuko du udalean. Auzokonposta eta autokonposta, jartzen ditu herriaren egindako bilketaren guztiaren zentro bezala, oinarri bezala. Izenburuak berak ere gauza bera, “Auto eta auzo konpostaz etorkizun jasangarri baten alde” hori da oinarria, esango genuke, irakurri, -Conforme a dicha instrucción la Viceconsejería de Medio Ambiente considera el compostaje comunitario como una operacion de reduccion de residuos en sentido amplio y no una actividad de gestion residuos siempre y cuando se cumplan los umbrales fijados en el apartado primero de la citada instrucción-

Aurrerago ere, esaten du aholkatzen duela beti ere auzokonpostajea egitea baina en zonas residenciales de baja densidad. Kasu konkretua jarri arren, Hernani izan zen sistema hau atez ateko ez, baina gehien bultzatzen zituenak, auzokonposta egiteko hobariak ematen zenez jende asko apuntatu zen, eta iritsi zen momentu bat ezin zela kudeatu eta murriztu egin behar izan zuen eta ona bada bete dena, baina horrek dauka demagogia puntu hori, puntu didaktikoa izan daiteke baina hori ere, bere tamainan. Ezin dena auzokonpostajea egin. Eskertu nahi diogu Cristiani herritar talde baten kexak bildu eta hona ekarri izana. Zuek auzokonpostagailuak oinarri bezala jartzen duzue, guk ez. Guk oinarri jarri behar badugu edukiontziak izango dira, oinarrituz zuek egindako estudiotan, Idemak egin zuena, edukiontzik bilketa egitea hobea zela. Hala ere, bilketak adar asko ditu, oinarria edukiontziz jasotzea. Bestea izango da, atez atekoa egitea, arraindegietan egiten ari garena, bertan jasoz. Eta nola ez, autokonpostajea ez da legean oinarrituta, lehendik dator eta bultzatu egin behar da. Konpostaje komunitarioetan aztertu behar du zenbat kostatzen den, zenbat ateratzen den eta Cristianek esan duen bezala arazoak sortzen dituen edo ez. Orain arte sistema aldatu egin genuen, edukiontzia oinarrituz, eta ez ditu autokonpostagailu horiek kendu, aurrena probatu behar dugulako sistema ona dela eta funtzionatzen duela, jasangarria dela, eroso, e.a. Datuak badauzkagu %70tik gora goaz, esan genezake konpost hori ona dela. Mankomunitateak egin dizkigu karakterizazioak, kalitatezko bilketa den jakingo dugu eta baloratu auzokonpostaje horietan zer egiten ari garen eta horren arabera egin beharreko aldaketa. Gure helburua betikoa egitea izango da, bilketa ahalik eta eraginkorrena, ahalik eta gehien sailkatu, modu erosoenean eta modu merkeenean. Orduan ez dezagun ondorioa aurretik eta ikerketak hori eman behar duela. Badakigu gure azkeneko puntua zein den beraz goazen ikerketa egitea eta zer hobekuntza jarri dezakegun. Beraz, zuenari ezezkoa emango diogu eta gureari aldekoa.”

Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Pena ematen Patxi zu ez egon izana zinegotziak plenoaren aurretik izan dugun bileran Aipatu dudan lehenengo gauza izan delako ez nuelako sistema bilketaren inguruan mozioan aipua egin. Inongo momentuan ez dugu aipatu bilketaren eta frakzioa organikoaren erdigunea auzokonposta egon behar duenik, hori gaizki ulertu baduzu gaizki ulertua. Lehenengo momentuan azaldu diot Olatz eta Cristiani esan diet, testuak ez du aipatzen edukiontzi, zintzikaliorik ezer, ez nuelako eztabaida antzu batean erori nahi. Ez dugu erdigunean ezta auzokonposta ez auzokonposta kokatzen. Kurioso da zuk arazo jarri duzun bilera, bestea Tolosako udala sistema hobetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du eta hau parte hartzaileekin batera garatuko duela hitz ematen du.*

Guk ez dugu sisteman erdigunean jartzen baina hobetzen jarraitu behar dela eta azpimarratu nahi dut ardura zuena dela. Azkenik, asko jaso bai, berezita jaso ere esaten duzu, gutxi gastatu ere, efizientzia aipatzen duzu, baina efizientzian badago beste puntu inportantea: frakzioa, jasotzen denaren kalitatea. Bitan egin duzun aipamena baina azkeneko ñabardura hau oso inportantea dela iruditzen zait eta ez duzu aipatu.”

Idazkariak azaldu du komunitateko auto konpostagailuen inguruan, hasiera batean Alderdi Sozialistak aurkeztu ondoren EAJ alderdiaren adostu dutela mozioa.

Honela dio:

“Tolosako udalerriko zenbait auzoetako auzokonpostagailuen sistemaren inguruko hausnarketa abian jartzeko Alderdi Sozialista eta EAJ-PNVren mozioa

Tolosako Alderdi Sozialistak eta EAJ-PNV taldeak eskatzen diote udalari :

- 1.- Azter ditzala sakontasunez Tolosako auzokonpostagailu sistemen egoera (bai osasun ikuspegitik eta baita ikuspegi ekonomikoari begira), erabilera eta eraginkortasuna.
- 2.- Auzokonpostagailu sistema horren azterketak ematen dituen ondorioak jaso ondoren, udalak guzti horiek mahai gaineratu ditzala, ondorio horiek eztabaidatuak eta partekatuak izan daitezten.
- 3.- Horren baitan, udalak har ditzala hartu beharreko erabakiak zaborren kudeaketa egokia burutu ahal izateko.”

Jarraian EHBildu alderdiak aurkeztu duen mozioa irakurri du. Hitzez hitz honela dio:

“AUTO ETA AUZO KONPOSTAZ ETORKIZUN JASANGARRI BATEN ALDE

Hondakinen kudeaketa eta gestioa azken urteetan gatazka iturri bilakatu da Gipuzkoan. Gure gizartearen isla da sortzen dugun hondakin kopurua eta zentzu horretan gure gizartearen geroratzearekin erabat lotua dago. Geroz eta gehiago birziklatu orduan eta gizarte orekatuagoa eta jasangarriagoa eraikitzen dugu.

Bide horretan hondakin organikoaren gainean konpostajea bezalako teknikak leku desberdinetan zabaldu dirá, zakar poltsako frakzio zati inportanteena izanda, egoki kudeatuta erabat birziklagarria baita.

Hondakin organikoa, konpost bilakatzen da eta horretarako dagokion tratamendu eta zaintza behar ditu.

Tolosan, horren sustapenari begira, auto konposta garatu da azken urte luzeetan, zeinaren bidez, lur sail bat duten norbanako familia unitateek beren hondakin organikoa kudeatu duten. Hurrengo pausua, lur zatirik izan ez eta frakzio organikoa kudeatu nahi zuten familiei auzo konposta egiteko aukera zabaltzea izan zen.

Bi aukera hauen bidez hondakina sorgunean bertan kudeatzen da, co2 isurketak mugatzen, garraiatu behar: ez delako, tratamendu gastuak mugatzen, konpostaje plantara eraman behar ez delako eta kontzientziazioan lan egiten, parte hartzen duten familiek sortzen dutena ongarri nola bilakatzen den ikusten dutelako.

Hau guztia kontutan hartuta, Tolosako udalak ondorengo adosten du:

-Auzo konpostagailuen mantenu ardura udalarena den neurrian, hauen mantenua (kandaduak egotea, txukun mantentzea...) bermatuko du udalak,

-Auzo konposta hobetzen jarraitzeko ikerketa bat burutuko du udalak, auzo konpostan parte hartzen duten familien jarrera ezagutu eta batz bester sortzen duten hondakin kopuruaren informazio izateko besteak beste.

-Herritarrek horrelako kudeaketa sistemen alde pausoak ematen jarraitzeko kanpaina bat abiaraziko du udalak eta hala eskatuta, auzune berrietara zabalduko du auzo konposta.

-Tolosako udala sistema hobetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du eta hau parte hartzaileekin batera garatuko duela hitz ematen du.

-Tolosako udala, ahalik eta gehien birziklatzearen alde eta ahalik eta kalitate gehieneko frakzioak biltzearen alde lan egingo du."

Lehenik eta behin, EHBildu alderdiak aurkeztu duen mozioa bozketara jarri da eta, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE(1) alderdien aurkako botoekin eta EHBildu alderdiaren aldeko botoekin (6) **mozioa ez da onartu.**

Jarraian, Tolosako Alberdi Sozialistak eta EAJ-PNV alderdiak adostu duten mozioa bozketara jarri ondoren, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE(1) alderdien aldeko botoekin eta EHBILDU (6) alderdiaren aurkako botoekin, gehiengo, mozioa **onartu da.**

16. Galderak eta eskaerak.

Ez da izan ez galderarik ezta eskaerarik ere.

Besterik gabe, gaueko bederatziak eta erdietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

16. Ruegos y preguntas.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21 horas y 30 minutos de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

IDAZKARIA